



...eta
Kittoa!

2019-I-11

1083 zkia.



Autoekiko maitasuna



ORAIN DUZU AUKERA!

www.aek.eus

matrikula zabalik

aek


Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 eibar@aek.eus

- Eibarren egindako markak
- Moda
- Etxeko osagarriak
- Yoga: "Yoga + Jarrera-Adimena" "Jarrera berregokitzea"
- Pilates Essential: "Lur eta aireko fusioa"
- Urtebetetzeak
- Formakuntzak
- Dastatzeak
- Hitzaldiak
- Ekitaldi korporatiboak

Eta askoz gehiago!

hello@helmethouse.es
943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
COLISEO ONDOAN!



helmet house
CONCEPT STORE



Informatizando

KARTELERIA DIGITALA

ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA. EIBAR ETA ELGOIBARREN.

TABERNETAN



ZINEMETAN



30
PANTAILA

KARTELERIA DIGITALA



HARATEGIETAN

OKINDEGIETAN



HARREMANETAN JARTZEKO

WWW.INFORMATICANDO.EUS

943 15 06 22

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Anton Beroiz

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)



Urte Berri On



Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MATXINGARRATZ. - Zapore gazi-goza duen belar mota. Gusto hori hobeto dastatzeko umek ahoan bueltaka erabiltzen zuten. "Eskolakuak giñanian, matxin-garratzak batzen genduzen, egarrixa kentzeko".

astean esanak

"Bertsolaritzak bigarren boom bat bizi du. 90eko hamarkadaren hasieran, bertso saioek entzule kopuru handia biltzen zuten; orain, bertso saio askoz gehiago daude, baina jende gutxiagokoak; hala ere, orotara publiko gehiago biltzen dute. Horrek esan nahi du bertsolaritzan gero eta gustu mota gehiago garatzeko aukerak ari direla sortzen. Bertsozaleen lehentasunak umorea, irudimena eta hunkiarazteko gaitasuna dira. Emakumeen artean umorearekiko lehentasuna txikiagoa da, umore motarekin ez dutelako bat egiten"

(HARKAITZ ZUBIRI, EHUKO IKERTZAILEA)

"Ba omen da euskara ez ikastearen aldeko eskubidea aldarrikatzen duenik. Absurdua benetan! Eta norbaitek errebindikatuko balu gaztelania ez ikastearen aldeko eskubidea, zer? Beste absurdu bat, baina pentsarazteko balio lezakeena. Bakoitzak duen hizkuntza erabiltzearen aldekoa naiz, baina sekula ere ez inorena gutxietsi, eta are gutxiago oztapatzearen aldekoa. Zenbaiten jarrera suertatzen zait mingarri: gu, elebidun izanik, euskaldunak ere bagarelako, tontoagotzat jotzea. Hemen bakarrik daude horrelako matematikak; agi denez, `bat` baino gutxiago dira `bi`"

(RUFINO IRAOLA, ZUTABEGILEA)

"Punk mugimenduaren leloetako batek zioen: *azkar bizi, azkar hil eta zerraldo ederra izango duzu*. Esango nuke egungo leloetako bat dela: *guztia nahi dut eta berehala nahi dut*. Guk, gurasook, seme- alabengan produkzio mekanismoaren logikarekin pentsatzen dugu; logika oso marxista da. Eta etorkizuna bermatuko dien zer edo zer ikasi dezatela nahi dugu. Gazteak konturatu dira hortik ez dagoela biderik eta beste bide batzuk urratzen ari dira; martxoaren 8an moduan. Gure belaunaldikook gauzak nora doazen ulertzeko gaitasuna galdetzen ari gara, areago datorrena kudeatzeko"

(RAMON IBEAS, ARABAKO CARITAS)

Urtarrillaren 21erako pensiño duiñen aldeko manifestaziñua deittu dabe



lazko urte osuan egindakuari jarraituta, herriko pentsiodun eta jubilauak pensiño duiñak eskatzeko konzentraziñua egin eben astelehengan Untzagan. Asteroko alkarretaratziekin segitzeko asmua dakela azaltziaz gain, mobilizaziñuekin hasi zirala urtebete pasau dala gogoratzeko, Untzaga pentsionisten plataformiak, Biztu alkartia, Aguijupens Debabarrenak eta Duintasuna alkartiak deittuta manifestaziñua egingo dabela aurreratu eben jubilauek ordezkariak: urtarrillaren 21ian (astelehena) izango da pensiño duin eta publikuak eskatzeko manifestaziñua, 12:00xetan Untzagatik abiatuta.



Agur Xabi Sarasketari

Aurreko asteko eguenian hil zan gurian oso tabernari ezaguna zan Xabi Sarasketa, 61 urterekin. Debako Arte Eskolan ikasitakua eta Egaña taillarrian biharrian jardun arren, barraren beste aldi urte morduan ibiltziagaittik (eta bere irribarriagaittik) ezagutzen genduan herrixan. Kultun ekin zetsan tabernako lanari eta, ondoren, Kike anaiarekin batera eta bixak oso gazte zirala (24 eta 17 urterekin) Eibarren lehen kafe-antokixa, Tas-Tas izenekua zabaldu eban. Bost urte geruago Punto y Aparte diskotekia ipiñi eben martxan, holan gure herriko gau-giro eta parrantetako erreferente billakatuta.

Bizikletak garbitzeko guniak jarriko dittue Azittain eta Ubitxan

Udalak bizikletak garbitzeko gune bat zabaldu barri dau Azittaiñen, Altzubarren frontoiaren parian, eta aditzera emon dabenez laster bigarren gune bat ipiñiko dabe martxan Ubitxan, Unberako igoera hasten dan itturri aldameneko aparkalekuan. Txirringarrixak asfaltitik dabilta holako guneren bat zabaltzeko eskatzen eta horrerri erantzuteko ekimenak 9.000 euroko aurrekontua izango dau. Garbigune bixak altzairu herdoilgaitzeko egitura izango dabe eta albuetan metakrilatozko manparak jarriko detsez. Barruan itturri bat eukiko dabe eta, botoiari sakatuz gero, ura presiñuarekin botako dau. Udal ordezkariak herritarrekin gizalegez jokatzeko dei egin nahi detse, Azittaingo garbigunia zabaldu eta egun gitxira baten batek mahuka lapurtu eban eta, holakorik berriz ez gertatzeko.



Bizikletak garbitzeko Azittaingo gunia.

Bizkarrezurraren inguruko hitzaldixa Portalean



Martitzenian, 18:00etan, Xabier Mendiarez kiropraktiko eta fisioterapeuta donostiarrak "Bizkarrezurrian billatu gaixotasunaren kausa" izenburuko hitzaldixa emongo dau Portalean. Adituak diñuenez, gaur egungo gaixotasun asko bizkarrezurreko desorekak eragindakuak dira eta, horrelakuak saihesten laguntzeko zein gure bizitza kalidadia hobetzeko baliagarrixak diran gako batzuk emongo dittu Mendiarezek. Hitzaldixak ordu erdi inguruko iraupena izango dau, adin guztiendako zuzenduta dago eta sarrerria duan izango da.

Xabier Mendiarez kiropraktikoa.

Duo Plaentxiko Jesus Urizar hil da

Jose Luis Badiolarekin batera Duo Plaentxi osatzen eban Jesus Urizar musikari elgoibartarra hil da aste honetan, 69 urterekin. Gure inguruan batez be Duo Plaentxirekin ezaguna egin bazan be, talde batian baiño gehixagotan aritu zan Urizar. Soraluzen, Santa Ana jaixetan igo zan estreiñekoz taula gaiñera, beste hamar lagunekin batera (tartian, Jose Luis Badiola be-
ra), Espontaneoak izenarekin.

Ondoren, Badiola eta Ines Maiztegi lagun hartuta, Nuvay hirukotia etorri zan eta 1968xan, barriz, Duo Plaentxi. 2013ko Eibar Kantuan jaialdixan emon eben agurreko kontzertua, baiña ez Badiolak ezta Urizarrek be ez zetsen kantatziari laga eta 2015ian atzera be alkartu ziran bixak, Veracruz talde ezagunetik zetorren Santi Sarasketarekin batera Basaur izeneko hirukotia osatzeko.



Urizar eta Badiola, Santi Sarasketarekin.

berria naiz:

21. korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra **GARESTIK GASTEIZA**

Klika
aek 21. korrika

www.korrika.eus

ERKIDE
Euskal Kooperatibak

La Gilda del Wortu

Maquelsa

INPRIMATZE SOLUZIOAK
www.maqelsa.com

Korrika apirilaren 13an Eibartik

Aste honetan aurkeztu dau AEK-k 21. Korrikaren ibilbidia. Garesen (Nafarroan) hasiko da apirilaren 4an eta amaieria, barriz, Gasteizen (Araban) izango da, 14an. Bixen bittartian, 2.560 kilometrotan zihar euskeriaren lekukoa eskurik esku pasauko da, eta Eibartik apirilaren 13an pasauko da: Korrika 14:55-etan sartuko da Azitaiñetik eta Ermurako bidia hartuko dau gero. Eibartarrok lekukua Maltzagan hartuko dogu eta Ermuko mugaraiño eruango dogu. Kontuan hartzekua da, bestalde, egun berian Itzuliako azken etapia jokatu dala Eibarren (Untzagan hasi eta

Toribio Etxebarria kalia amaittuko da lasterketia). Korrikaren 21. edizioak 'Klika' goiburua izango dau, Euskaraldiarekin hasittako bidia jarraitu eta euskeriaren aldeko jokabidiak hartzeko deia eginda. Aurten Jose Luis Enparantza 'Txillardegi' omenduko dau Korrikak.

Bestalde, Eibarko AEK euskaltegixan Korrika 21eko materixala (arropa eta osagarriak) salgai dake jada eta nahi dabenak martxuaren 22ra arte izango dau erosteko aukeria, astelehenetik barixakura, goizez 11:00etatik 12:30xetara eta arratsaldez 17:00etatik 19:00etara.

FM Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Mireia Ormaetxea Luis

4. urteurrena
2015-I-14

Zure argiak,
zure oroitzapenak
eta zure irribarre
eder-goxoak
gure bihotzak
argitzen dituzte.

BETI ZUREKIN,
ZURE GURASO
ETA AHIZPA



Udal Aurrekontua aurrera etaratzeko billerak hasi dira

Aurreko astian Miguel de los Toyos alkatiak Ana Telleria Ogasun zinegotzixarekin batera emondako prentsurrekuan esandakua araberak, aste honetan hasi ditue aurtengo Udal Aurrekontuaren inguruan beste alderdixekin adostasuna lortzeko billerak: "Aurrekontu proposamenaren zirriborrua azaruaren erdialdian helarazi jakuen beste alderdixeri eta hillebeteko epia euki dabe zuzenketak aurkezteko. Honezkero bakotzak nundik nora joko daben badakigu eta, hortaz, aste honetan danekin bildu eta laster behin-betiko aurrekontua prest eukitzia espero dogu".

Izan be, Gabonak aurretik egindako agerraldixetan, bai EAJ-PNVk baita EH Bilduk be aurrekontu proposamenaren inguruko euren jarrera azaldu eben prentsaren aurrian. Josu Mendicutte Rodriguez EAJ-PNVren alkategaixak uste dabez, 2015-2019 agintaldixa "agortuta dago arrakasta haundirik antzeman barik. Hortaz, agintaldixa amaitzeko 155 egun falta diranian ez ditue hi-



Merkatu Plazia dignifikau nahi dabe jeltzaliak.

ri-erronkak konponduko". Gaiñera, ez dau bihar besteko kudeaketa-gaitasunik ikusten proiektu estrategikorik gauzatzeko, "Eibarrek aurrera egiteko eibartarren gehiengo zabalak nahi daben maillan eta abiaduran". Gaiñeratu ebanez, enplegu gehixago eta hobia sortzeko hainbat akordio lortu ditue EAJK eta PSEk agintaldixan zihar, "eta horretako asko gauzatzeko dagoz oindiok". Gauzak holan, jeltzaliak ez detse zentzurik ikusten 2019rako proiektu barrixak negoziatzia

arieta oindiok bete barik dau guzaren akordiuak atzera be aurrekontuan sartzia eskatzen dabe: "2'7 millioi euro guztira. Beste 340.000 euro aurrekontuan jaso bai, baiña diru gehixago bihar daben ekimendako eta proiektu barrixendako bakarrik 50.000 euro izango lirakez, gehixenbat Rialtoko merkatu plazari gitxieneko duintasuna emon ahal izateko". Edozelan be, Mendicutek PSErekin ados ipintzeko borrodatia ez eze hori lortzeko esperantzia be badaka.

Oso bestelako ikuspegixa azaldu eben EH Bilduko Igone Lamarain eta Gorka Errastik: "PSEren Udal Gobernuak 2019rako proposatutako Udal Aurrekontua ondo aztertu ostian, EH Bilduk PSEk inizatiba barik segitzen dabela berresten dau, betiko politika estilua aldatzeko gauza izan barik eta ausardiarik gabe biharrian. Gaiñera, PSEk aurrekontuen negoziatziñuetan eskindu izan daben aldaketarako aukeria hutsaren hurrena izan da beti. Zorritzarrez, azken urtiotako ibilbidia ikusitta, uste dogu PNVk arnasa emongo detsela aurrekontua aurrera eruan ahal izateko eta horrek negoziatzeko gure aukeria mugatzen dau, PSEk ez dakalako gurekin adostasuna lortzeko premiñarik". Horregaittik, Udal Aurrekontua plenora eruaten dabenian Osoko Zuzenketia aurkeztuko dabela aurreratuko dabe.

Eta Irabazik, bestalde, iazko moduan Osoko Zuzenketia aurkezteko asmua azaldu eban, "Eibarren kalia dagua zenendako aterpetxia zabaltzia onartu arte".



Aspaceko umiak pozarren hartu eben Olentzero

Gabonetako oporrak hasi baiño lehen herriko eskoletan ibilli zan Olentzero, umieri bisita egitten eta, bestiak beste, Argatxan dagan Aspacera be juan zan. Normala danez, be- ra ikustiarekin batera pozarren ipiñi ziran ume guztiak eta primerako harrerria egin zetsen.

Hiru Erregiak bisitan izan ziran

Urteroko moduan, aurten be Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregien bisita jaso dogu herrixan. Betiko martxan, arratsaldian Ipuruia kiroldegixan egon ziran, Ipuruia gimnasia erritmika, Dantza Garaikidia eta Eibarko Balleta taldietakuak eskindu zittuen dantzak ikusten eta, ondoren, Untzagara jaitsi ziran, handik abiatuta herriko kalia karroza gaiñian, Eibarko Musika Bandakuak lagundutako kabalgatan ziherkatzeko.



Eibar cool/ da

Abbie White Newtownardsen (Ipar Irlanda) jaio zen, Belfastik 16 kilometrotara. Biztanle kopuruaren aldetik Eibarren antzekoa da (28.000 biztanle inguru ditu), “horregatik nago hain gustora hemen”, Abbiaren berbetan. Newtownardseko bizimodua ezberdina da. “Hiriaren erdigunean zerbitzuak, bankuak eta abar daude, baina inor ez da erdialdean bizi. Familia bakarreko etxebizitzetan bizi gara eta etxean egiten dugu bizitza, neguan batipat. Normalean 09:00etatik 17:00etara egiten du lan jendeak eta 18:00etan afaltzen dugu”.

Hizkuntzaren bidetik

Frantses filologia eta filologia hispanikoa ikasi zituen unibertsitatean, Belfasten. “Txikitatik frantsesa ikasi nuen, bigarren ikasturtean Madrilera joan nintzen gaztelera hobeto ikasteko”. Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean egin zuen lan Madril, “eta irakaskuntza ikasteaz gain, Espainiako toki asko ezagutzeko aukera eduki nuen”. Madrilgo ikastetxeak jarraitzeko eskaintza egin zion, baina Belfasten ezagutu zuen euskaldun talde batek gauza zoragarriak kontatu zizkion Euskal Herriari buruz eta planak aldatu zituen. “Donostiako Egia auzoko ikastola batean lan egiteko eskaera egin eta onartu egin zidaten, eta hara joan nintzen”.

Bide guztiek Eibarrera daramate

Belfasten ezagutu zuen euskaldun talde horretan eibartar bat zegoen, Alberto, gaur egun bere senarra dena. Alberto Belfastik Eibarrera itzuli zen eta Donostiako egonaldian berarengandik hurbilago egoteko aukera izan zuen Abbiek. Madrildik Donostiara ezberdintasunak nabaritu zituen. “Azken finean, Donostia hiria bada ere, herri bat bezalakoa da. Toki batek bestera oinez joan zaitezke, errazagoa da jendea ezagutzeko eta, gainera, ederra da”. Aldaketa hori gustatu zitzaion, “gehiago gustatzen zaizkidalako hiri txikiak”, eta Eibarrera etorri zenean are gus-



Hizkuntza akademia dauka Abbiek Bista Eder kalean. **Ekhi Belar**

torago sentitu zen. “Hasieran asteburuetan etortzen nintzen Eibarrera eta, azkenean, senarrarekin eta bi urteko semearekin bizi naiz hemen!”.

Etxeko janaria bezalakorik, ezer

Eibarrek harritu egin zuen Abbie hasieran. “Hiri txikia izanik pentsatzen nuen ez zela egongo gauza asko egiteko aukerarik, baina hemen jendea ez da geldirik geratzen! Kaleko bizitza asko dago eta jendea oso atsegina da”. Ez zitzaion asko kostatu Eibarko bizimodura egokitzea eta

lagunak egin zituen berehala. “Hizkuntza ezagutzen nuen, nire senarra hemengo da eta horrek bidea asko errazten du”. Horrela, ia oharkabean, denborak aurrera egin du eta familia osatu du Eibarren. Ahal duenean Newtownardsera joaten da edo familiakoak etortzen dira, baina badaude egunerokoan faltan botatzen dituen gauzak. “Hemengo janaria ona da, baina etxeko jakien falta sentitzen dut; hara joaten naizenean nire txokolate gustokoena erosteko aprobetxatzen dut; nire lagun minak han daude eta eurekin kafetegi ingeles tipiko batera joatea faltan botatzen dut, besteak beste”.

Eibarpool

Foballa asko gustatzen zaio eta Liverpool taldeko zalea bada ere (“aurten oso ondo gabilta Premier Leaguen, lehenengo postuan”), hona etorri zenetik Eibarko bazkidea da eta Ipuruara joaten da etxeko neurketak ikustera. “Etorri nintzenean taldea Bigarren B Mailan zegoen eta ordutik joan naiz zelaira. Orain, Lehen Mailan, asko ari naiz gozatzen”. Ipurua ez da Anfield, baina beti izan du xarma britaniarra.

“When in Rome,
do as the
romans do”

“Non zer ikusi,
han huraxe ikasi”



eva alberdi

Tantaka

Eibarko Udalak, Gizartekintza saileko Haurrak, Familia eta Gaztedia arloaren eta Juan San Martin Liburutegiaren eskutik, martxan jarri du ikasturte honetan haurrenganako abusua prebenitzeko programa. Programa honek **"Tantaka, tabuak ipuinetatik lantzen"** du izena eta herriko sei ikastetxek hartuko dute parte.

Elisenda Pascual i Martík idatzita eta Mercé Serra Valls-ek ilustratutako **"Clara y su sombra"** albuma erabiliko da deserosoa den edota gizartean tabuzat jotzen den gai bat lantzeko: **sexu-abusuak haurtzaroan.**

Liburu hori oinarri hartuta, alde batetik erakusketa hau eramango da ikastetxe bakoitzera eta, bertan, Garaitza elkartearen eskutik formakuntza saio batzuk jaso ondoren, umeei landuko dute gaia, apropos prestatutako gida pedagogiko batez lagunduta. Adin desberdinetako hiru rogei gela inguruk hartuko dute parte



programa honetan, eta irakasleek egingo dituzten bisita gidatuekin 1.200 umerengana ailegatzea espero da.

Udal liburutegiak haurrenganako abusua prebenitzeko ipuinak eta beste baliabide batzuk biltzen dituen gida tematikoa egin du ikastetxeetan material osagarri moduan banatzeko. **Ermuko udal liburutegiak** utzi dizkigu erakusketarako ideia eta elementuak.

Gaur egun hainbat eta hainbat umek bizi duten errealitatea ipuin modura azaldu nahi du **"Clara y su sombra"** lanak. Sarritan, haurren kontrako sexu-abusuen gaia osasun arloko edota epaitegietako profesionalen esparrura mugatzen da. Horren inguruan hitz egitea deserosoa eta zaila izan ohi da gustuko ez duena ezkutatze joera duen gizartean. Gai hori ikusaraztea bilatzen du programa honek, bereziki txikienei. Osasungarriak eta errespetuzkoak ez diren egoerak ikusarazi nahi ditu; izena jartzen die egoerei, haiekin bukatu ahal izateko.



aitor buendía

Tuterako kardu gorria... gordinik!

Lehenik eta behin, urte berri on! Eta horretaz ari garela, **gabon jaietako gehiegikeriei aurre egiteko une egokia da.** Eta zuen kasua ez bada –espero dut horrela izatea– berdin du. Nire asmoa, noizbehinka, mahai gainean ahal den neurrian izan behar ditugun sasoiako produktuak ekartzea da. Eta oraingoan Tuteraraino joango gara, kardu gorria gertutik ezagutzeko. **Javier Navarro** Tuterako nekazari peto-petoa da. Berak azaldu digunez, **"kardu zuria gehienbat egosi egiten da. Baina, kasu honetan, gordinik kontsumitzeko kardu gorriari buruz ari gara bertan. Laborantza guztiz tradizionalan eginda dago, lurrarekin estalitakoa. Harrigarriena bere testura da, entsaladan jan ahal izatea eta jende askok ez du alderdi hau ezagutzen"**.

Bittor Rodriguez nutrizionistak gogorarazi digunez, **"ia ez du kaloriarik, ur-kantitate izugarria dauka (% 93) eta, bere kolore gorria dela eta, antioxidante mordo dauka. Nafarroako Erriberan landatua, ia desagertuta zegoen. Sustertu egin dugu, batez ere estaltzeko moduari eta laborantza tradizionalari da-**



gokienean. Kalitatea lurrarekin estaltzean lortzen da. Izaki biziduna da, eta plastiko edo paperarekin estaltzeak ez dauka bat ere zerikusirik. Lurrak lehen aipatutako ezaugarri horiek guztiak ematen dizkio eta, gainera, esate baterako, izotzetik babesten dituen isolatzailea da".

Landaketa oso luzea da. Ekainean egiten da, uda osoan gartzten da, lurrarekin estaltzea urrian-azaroan egiten da, eta horrela mantentzen da gutxienez 40 egunetan, kontsumitzen hasi baino lehen. Hortik aurrera -oraintxe bertan, beraz- martxora arte disfrutatzen has gaitezke. Etxean jateko, errezeta oso erraza da. Lehenik eta behin, garbitu, kardu zuriarekin egingo genukeen bezala (gorriak hari gutxiago dauzka). Entsaladan egiteko, garbitu ondoren kizkurtu egingo dugu, ebaki batzuk egingo dizkiogu penka edo orri-mami zati bakoitzari. Ondoren, urakin eta izotzak betetako bol batean sartuko dugu (horrela, puntak kizkurtu egingo dira). Ondoren, oliba oliobirjina, granada apurtxo bat eta Añanako gatzarekin prestatuko dugu. Testura krokanteak harrituta lagako zaitue. On egin!



Herriko eskubaloiak egun berezia biziko du bihar

Azken hamarkadotan Eibarko eskubaloia-
ren inguruan egindako lanaren errekonozimendua egiteko asmoarekin, Eibar Eskubaloitiek egitarau berezia antolatu dute biharko. Ipuruia kiroldegia 1. Maila Nazionaleko partidu interesgarria hartuko du 17:00etan, mailari eusteko borrokan aurkari zuzena duen Zaragozako Dominicosen kontrakoa. Neurketa hori amaituta, 18:30ean herriko eskubaloia omenduko dute, Eibarko hainbat taldetan jokatu duten guztiak kontuak hartuta. Arrate, Amaña, Mickey Mouse Beltza, Haritza, Akondia, Universidad Laboral, Pickup, Salud y Cultura... talde askok ordezkatu dute Eibar eskubaloi esparruan eta, antolatzaileek diote-

nez, "talde horietan jokatu duten guztiak gonbidatu nahi ditugu ondo merezitako omenaldia jasotzera".

Jokalari-ohi guztiak kantxaratu ondoren, jarraian Asobal Ligako bi taldeen arteko norgehiagokaz gozatzeko aukera izango da. Irungo Bidasoak eta Santanderreko Balonmano Sinfín-ek nor baino nor jardungo dute 19:00etatik aurrera. Partidua amaituta, eskubaloi jaiegunak kalean jarraitu du, Ametsa eta Buenos Aires tabernen babesarekin. Partiduen aurretik ere izango da zer ospatu, Casinoan babajana izango baita bazkaltzeko. Izena emateko 628-241564 telefono zenbakira deitu daiteke (Angel Insausti).

Herriko igerilariek jo eta ke amaitu zuten urtea eta berdin hasi

Bihar ere hitzordu bi izango dituzte Eibar Igerixan taldekoek: goizez, Tolosako Usabal kiroldegian jokatu den Gipuzkoako Kluben Koparekin; eta arratsaldean, Oñatiko Zubikoan jokatu den alebinen mailako laugarren jardunaldiarekin. Aurreko asteburuan, bestalde, Miren Galdos eta Paula Gabilondo Donostian izan ziren Gipuzkoako Federazioak antolatutako teknifikazio jardunaldian. Anoetako Paco Yoldi igerilekuetan egindako ekitaldian Santiago Veiga Espainiako hautatzaileak hartu zuen parte.

2018ko azken astean ere hainbat sarietan hartu zuten parte Eibarko igerilariek. Iruñako XLVIII. San Saturnino Trofeoan urte bakoitzeko lehenengo zazpi onenen arteko lehiak ikusteko aukera izan zen eta Eibar Igerixanetik Maite Barruetabeña,



Jon Osa eta Roke Etxeberria (2001ekoak), Elene Oiarzabal (2002), Paula Gabilondo (2004) eta Miren Galdos (2005) izan ziren parte hartzen. Arratsaldeko finalerako sailkatzeaz gainera, Barruetabeña eta Galdosek irabazi egin zuten euren proba eta Gabilondo bigarrena izan zen. Donostian jokatu izen handiko XXXVI. Gabo-

netako Nazioarteko Torneoan, bestalde, lau eibartar izan ziren parte hartzen, Maite Barruetabeña Euskadiko selekzioarekin, eta berarentzako izan zen brontzezko domina bat (bigarren izan zen 100 metroan, laugarren 50ekoan eta bosgarren 200 estiloetan). Jon Osa laugarren sailkatu zen 100 metro bizkar proban.

Bihar hasiko da Gipuzkoako taldekako xake txapelketa

Beste urte batez Gipuzkoako taldekako txapelketa jokatzeko unea iritsi da urte berriarekin batera, eta urtero xakearen zita izan ohi den horretan Eibarko Klub Deportiboak bi talderekin hartuko du parte. A taldeak Gipuzkoako lehenengo mailan jokatu du, iazko jokalariek berberekin, astez aste martxoaren 23ra arte 11 jardunaldi jo-

katzeko. Bihar Azkoitian izango du hitzordua taldeak, 16:00etan Anaitasuna-Kakute A-ren aurka. B taldeak Gipuzkoako hirugarren mailan jokatu du; hor ere iazko jokalariekin, azken urte hauetan Xake Eskolatik irtendakoekin. Hirugarren txapelketa izango da eurentzat ere, baina asteburu honetan atsedean hartzea egokitu zaie.

AITOR HERNANDEZ GONZALEZ



“GUREAK Lantegiko zure betiko lagunek ez zaitugu ahaztuko”



MAITE ZAITUGU



Urtarrilaren 4an 100 urterekin hil zen Donostian inoiz izan den pilotaririk handiena. Asoliartza baserrian jaiotako Eibarko semea izarra izan zen pilotaren garairik oparoenean. Ahal fisiko harrigarri eta nortasun handikoa, aitzindaria izan zen bai prestaketan eta baita pilota enpresekin negoziatzen ere. Bere eskutik pilotak urrats handia eman zuen kirol moderno izateko bidean.

Eibarko pilotariak 1936an debutatu zuen, Gerra Zibilaren bezperatan, eta 1960an erretiratu zen, 42 urterekin. Hirutan izan zen buruz-buruko txapeldun: 1948an Atano III.a ordura arteko erregeari irabazi zion 22-6 eta, ondoren, Akarregiri irabazi zizkion beste bi finalak 1950ean eta 1951n (22-15 eta 22-14), 1953an Barberito I.ren kontrako finala jokatzeari ezetz esan aurretik. Enpresekin izandako diru-arazoak konpontzeko bidean zeudela, enpresariak finalaren sarrerak lau jaialdirako abonoan sartu nahi zutela jakitean eman zuen ezetza eibartarrak. Aurretik ere hainbat alditan egin zien aurre Gallastegik eta baita geroko pilotariek izango zituzten hainbat eskubide lortzeko aurrerapausuak bete ere.

Miguel Gallastegiren ibilbidean nabarmentzekoa da partiduak antolatzerakoan aurkariari eskaintzen zizkien abantailak, gaur egunetik begiratuta beste pilota mundu bat adierazten dutenak. Berak bakarrik hirukote bati egin zion aurre eta baita ira-



2001ean Eibarko Kirol Sari berezia jaso zuen Gallastegik, Akarregirekin batera.

bazi ere: 22-21 nagusitu zitzaion Corona, Ruperto eta Titin III.aren aitari azken honen jaioterrian, Tricion, jokaturako partiduan. Bestalde, binaka hirukoteen aurka jokaturako 33 partidutik zazpi besterik ez zituen galdu. Eta berak bakarrik bikoteen kontra jokaturako 24tik zortzitan ez zen 22ko kartoirari iritsi. Ez hori bakarrik: Pampi Ladutxeren aita eta Haranbillet hutsean ere laga zituen horietako batean.

Bestalde, aurreko bi hamarkadatan frontoiatiko erregea izan zen Atano III.ari buruz-buru jokaturako partidu guztiak irabazi zizkion txapela jantzi aurretik. 1942tik 1945era 22-16 eta 22-10 irabazi zion As-telenan eta 22-11 Tolosan, 1948an 22-6 irabazi eta txapela kendu baino lehen. Asoliartzako Herkules, Eibarko Koloso eta Arrateko Basajauna deitutakoa besagain

jotzen zuen kolpearekin nabarmentzen zen eta "pilota ere bikain moztzen zuen txapagainean". Planta bikainekoa, pelikuletan Tarzanan papera egiten zuen Jhonny Weismuller igerilari handiarekin ere nahastu zuten. Bere urterik onena 1945a izan zen: hamar hilabetetan 104 partidu jokatu zituen eta, horietatik, 78 irabazi. Atzelaria izanda ere, aurrelari postuan 94 partidu jokatu zituen, "Kortabitarte pixka bat jaitsi eta atzeko koadroetan kontrariorik gabe geratu zenean".

Orain dela urte batzuk berak Donostian eskaini zigun elkarrizketan (baita gero bazkaltzera gonbidatu ere) horrela ikusten zuen sasoi bateko eta gaur egungo pilotaren desberdintasunak: "Oraingo pilotariek ibili egiten dute pilota, baina sekulan ez dute indararrekin jotzen eta pilota akaba-

tu. Pilota sentitu egin behar duzu besoan, gozatu eskuan; bestela, berak nahi duen tokira joango da. Trapuz beteta ezin daiteke egin pilotan. Airea ere nagusi da orain; lehen, onenek ere, behin edo derrigorrezkoa zenean jotzen zuten airez". Prestaketa izan zen bere merituetako bat: "Pilolaria izateko ondo zaindu behar nintzela



Miguel iazko irudi batean, 100 urte bete zituen egunean.

esan nion neure buruari. Carral, Eguren eta Etxabatarrekin joaten nintzen egunero Astelenara. Aizkorarekin ere ordu laurden bat egiten nuen egunero eta Kalamuara ere igotzen nintzen. Gehiago nekatzen nintzen entrenamenduetan partiduetan baino". Eibarren Zurdo de Mondragoni bakarrik ezkerreko eskuarekin irabazitako partidua gogoratzen zuen batez ere.



Behin erretiroa hartuta, hainbat antzokitako enpresaria izan zen, tartean gure herriko Amaia antzokikoa. Txapeldun handia oso ohikoa izan da pilotalekuan azken urtera arte eta ez zuen barkatzen urteroko buruz-buruko txapeldun ohien bazkaria.



Akarregi, Kortabitarte, Gallastegi eta Bolinaga, partidu bat hasi aurretik.



Olabarria AUTOBUSAK

BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK

Besaide, 11. ELORRIO

Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar) / 94 - 623 16 47 (bulegokoa) / joxean@jolarbarria.com

Hamazortzi urte bete eta handik hiru hilabetera atera zuen kotxeak karneta Anton Beroizek. Autoak ziren bere pasioa (eta izaten jarraitzen dute), eta muga legala gaindituta, lau gorpilen gainean gozatzeko aukera iritsi zitzaion. Orduan etorri ziren Rallye Sports denda, lehen autoa, rallyak, auto-igoerak (Arrateko Igoera gehien egin dituen pilotua da), mila abentura eta baita ezustekoren bat ere. Ia mende erdia iraun duen zaletasuna. Hala ere, motorrak, autoekiko maitasunak, piztuta jarraitzen du.

Gurasoek Donosti taberna zuten Barrena kalean, eta biltegian lasterketetarako autoen osagarriak eta ordezeko piezak saltzeko denda txiki bat jartzeko konbentzitu zituen Anton Beroizek. Rallye Sport izena jarri zion eta Eibar eta inguruko herrietako auto-lasterketetako zaleen bilgune bihurtu zen hasieratik. Gurasoek taberna itxi zutenean tabernaren lokala hartu zuen Beroizek eta, osagarrien denda mantentzeaz gain, autoak saltzen hasi zen. Autoekiko pasioa eta lanbidea elkarrekin hazi ziren, batak bestea elikatuz, eta lau gorpilen inguruko maitasunak beste pauso bat ematera bultzatu zuen: lasterketetan ibiltzea. 1971. urteko Arrateko Igoeran egin zuen debuta Beroizek auto-lasterketetan. “Kaleko autoarekin egin nuen igoera”, gogoratzen du Beroizek, “Seat 124 batekin”. Aldaketa txiki batzuk egin zizkion, baina bestela egunerokoan erabiltzen zuen autoa zen. “Neska-lagunarekin ibiltzeko, hondartzara joateko, erosketak egiteko...



Frenorik ez duen zaletasuna

erabiltzen nuen. Sasoi hartan normala zen kaleko autoekin lehiatzea, baina orain gauzak asko aldatu dira, lasterketetarako auto espezifikoak erabiltzen direlako”.

Babesleekin lehiatzen

Arrateko Igoera egin eta gero lasterketa gehiago etorri ziren eta eskaintza erakargarria jaso zuen Beroizek. “Behin Seat Otolako tailerrekin pasa behar nintzen eta au-

toan euren publizitatea jartzeko eskaera egin zidaten, kotxeak lasterketetan izan zitzaizkeen arazoak tailerrean konpontzearen truke”. Beroizi ideia bikaina iruditu zitzaion, sasoi hartan ez zelako normala horrelako babesba jasotzea. Seat 1430 batekin lehiatzen zen orduan, bere bigarren autoarekin, eta lasterketa bakoitzerako kotxea fin-fin uzten zioten.


Seat Otolakoekin babesleen bidea ireki eta gero, beste pauso bat eman zuen Beroizek Ramon Idigoras, Evaristo Valdes eta Miguelon Larrañagarekin. Ermutik Mallabiara bidean dagoen Egui enpresako Jesus Lizarralde gerentarekin berba egin zuten eta automobil-taldea jarri zuten martxan. Eguiren babesarekin lasterketa handiagoetan parte hartzeko aukera izan zuten, baita nazioarteko mailako txapelketetan ere, “eta emaitza politak lortu genituen”. Taldeko auto-gidari bakoitzak auto ezberdina zuen eta maila ezberdinetan lehiatzen ziren. Beroiz 2. mailako autoarekin ibiltzen zen.

Eguiren babesba garrantzitsua izan zen, baina ondoren iritsi zitzaion aukera ez zen gutxiagorako izan. 1978an Espainian Ford Fiesta autoa saltzen hasi ziren eta Ford Olaeta kontzesionarioko zuzendari



Auro ezberdinekin lehiatu du Beroizek bere kirol ibilbidean.

nagusiak, Carmelo Benaventek, ukatu ezin zuen eskaera egin zion Beroizi. "Zer iruditzen zaizu lasterketetarako autoa egiten badut?", esan zion Benaventek. "Lehiatzen hasi behar zara orain, Carmelo?", erantzun zion azkenak. "Ez, nik ez daukat adorerik, zuretzat egin nahi dut". Beroiz harrিতa geratu zen. "Bikain!". Sasoi hartan ez zen batere arrunta lasterketetan aritzeko babesa jasotzea eta are gutxiago lasterketetan ibiltzeko autoa jasotzea. "Lasterketetarako Ford Fiesta bat jaso duen lehen auto-gidari eibartarra izan nintzen". Beroizek berba onak besterik ez ditu Benaventerentzat, baina baita abentura honetan lagundu zion Jose Matin Kaperotxipirentzat ere. "Eta euren emazteentzat!".



Berriz ere lehiara bueltatzeko gogoz dago Beroiz.

Egun beltza Laudion

Urte bi egin zituen Ford Fiestarekin, inoiz izan duen istripu handiena iritsi arte. Laudion gertatu zen 1980ko uztailaren 13an, baina orain gertatu izan balitz bezala gogoratzen du momentu hura Beroizek. "Bide zuzen batetik nindoan, azeleragailua guztiz sakatuta, autoa ezkererantz biratzen hasi zela sentitu nuen eta bapatean... danba! Paretaren aurka jo nuen, autoak hogeita metro egin zituen arrastaka eta iraulita geratu nintzen". Bularrezurra hautsi zuen, ezin zuen arnasarik hartu, mingaina moztu zitzaion eta ezin zen autotik irten.

Bere atzetik Juantxo Gastesi zetorren eta berebizikoa izan zen honen laguntza. "Lasterketa irabazteko lehiari zebilen, baina istripua ikusi zuenean laguntzeko geratu zen". Orduan ez zegoen ambulanziarik lasterketaren tarte guztietan eta Beroizen egoera oso larria zen. "Ahalik eta

azkarren joan behar ginen ospitalera, baina azkar joan ginenez demaseko mina hartzen nuen edozein mugimendurekin". Bost kilometrotara zegoen Artziniegako ambulatiora iritsi ziren, Gastesi lasterketara itzuli zen eta Beroiz Gurutzetako ospitalera eraman zuten ambulanzian. "Ambulanzia atzeko atea ez zuten ondo itxi eta atzeko aldean bakarrik nindoan. Ezin nuen oihurik egin eta gerriko bati eutsita egin nuen bide guztia, demaseko minarekin". Ospitalean ez ziren minak amaitu. "Esku-ohetan etzan ninduten eta, urgentziakoa kontua zenez, bizkor eraman nahi ninduten azterketak egitera, baina erizain batek ez zuen bihurgune bat ondo neurtu eta esku-ohetik jausi nintzen". Lau gorpilen gainean Beroizek izan duen egunik beltzena, duda barik.

Auto klasikoaren xarma

Istripu larriaren ondoren Beroizek ez zuen galdu autoekiko maitasuna eta hamaika hilabete geroago lehiari zebilen berriz ere. Arrateko ligoeran, nola ez. "Lasterketa hartan ere autoa ez zebilen ondo eta istripua izango nuela pentsatu nuen, baina azkenean ez nuen ezustekorik izan".

Rally Euskal-Nafarrean, Firestone Nazioarteko Rallyan eta beste hainbat lasterketa handitan ibili eta gero, abiadura nagusitzen den txapelketak utzi zituen. "1990etik 1998ra ez nuen lasterketarik ikusi ere egin", eta poliki-poliki motorraren munduan berriz sartzen hasi eta gero, 2006an rally klasikoetan hasi zen Beroiz bere seme Ibanekin.

Gutxienez 25 urte dituzten autoak lehiatzen dira rally klasikoetan eta ez dituzte abiadura handia hartzen uzten dizkioten gehigarriak. Autoak ezin dira orduko 49,9 kilometrotan baino bizkorrago joan eta errepede irekian lehiatzen dira, ez trafikoa-ri itxitako bideetan. "Ematen duena baino askoz ere zailagoa da horrelako rallyetan lehiatzea", Beroizen ustez, "eta kopilotuaren lana berebizikoa da". Bere semeak egiten zuen lan hori eta Antonek autoa gidatzen zuen.

Gaur egun utzita dauka lehiaketan munda, baina bueltatzeko asmoa dauka Beroizek. "Polita da semearekin lehiatzea eta lasterketaren bat gehiago egin nahi dut berarekin". 48 urte pasa dira auto-lasterketetan debuta egin zuenetik, baina autoekiko pasioak bizirik jarraitzen du. 48 urte rally, lasterketa-tarte, denbora, parke itxi, lagunak diren arerio, asistentzia eta areka artean. 48 urte lau gorpilen gainean.



Patxi Zabaletarekin 1975eko Errioxako Kriteriumean.

Deporreko mendizaleek urte osorako egutegia prestatu dute

Ezkabako Ihesaldia (GR 225) eta Artzaintza Naturbidea izango dira denboraldi berrirako ardatz nagusiak Klub Deportiboko mendi batzordeak urte osorako prestatutako egitarauan. Lehenengo egun bateko lau etapetan egingo dute eta bigarrena ez da denboraldi honetan amaituko (guztira 19 etapa izango ditu, horietako zazpi aurten egitekoak). Ezkabako Ihesaldiak iaz zabaldutako bide berriari jarraituko dio, *"memoria historikoa eta natura bilduko dituzten etapei jarraituta"*. Bihar bertan osatuko dute lehenengo etapa, Iruñeatik irten eta Olabera heltzeko, tartean Ezkaba (895 metro) gaindituta. Laugarren eta azken etapa maiatzean osatuko dute. Aurretik, urtarrilean bertan, hilaren 26an Olabetik Salgotserako ibilbidea egingo dute eta, behin otsailean sartuta, Salgot eta Lazturio-Auriberriren arteko ibilbidea osatuko dute. Egun bateko etapetan osatzeko proiektu handiagoa izango da Artzaintza Naturbidearena, aurten martxoan hasi eta irailean arteko zazpi etapetan lehen fasea beteko duena. Honakoak izango dira aurtengo zazpi etapak: Arantzazu-Gatzaga, Arlaban-Urkiola, Urkiola

parkea, Arraba-Izarra, Garrasatxuko aldaera, Izarra-Villalba de Losa, Villalva de Losa-Bóveda eta B'veda-San Millan de San Zadornil. Artzaintza Naturbidea artzaintzaren antzinako kultura balioesteko gonbidapena da, bertako arraza ezberdinak ezagutzeko aukera eskaintzen duena (latxa ardia, pottoka, jaka nafartarra, azpi gorri ahuntza, terreña behia, pirenaica, losino zaldia edo Euskdiko mendiarena).

Egun bateko irteerei dago kienez, badira beste batzuk, tartean sagardotegira urtero egiten dutena: *"Hor jendea erruz apuntatzen da; badu, bai, arrakasta"*. Oraingoan Arrasatetik Aramaiora eramango die otsaileko irteera horrek, tartean Tellamendi gainditzeko. Ekainean, bestalde, bi urtetik behin egiten duten Eibarko Itzulia izango dute zain, urteroko Finalista Eguna ahaztu barik. Bestalde, Iparraldera ere joko dute, Arrosa eta Irulegi elkartzuz, Jara gaina pasatu ondoren.

3-5 eguneko irteeren arloan, Aste Santukoa eta Santu Guztien zubikoa azaltzen dira osatutako egutegian; bost eguneko lehenengokoan Tarragona Pradeseko mendilerroa joango dira eta bigarrengoan



Mendi-irteeretan parte hartzeko aukera zaletu guztiei dago zabaldua. Martitzen eta eguenetan (19:30/20:30) eman daiteke izena edo 943-201904 telefono zenbakira deituta.

Huescako Guarako mendilerroa. Beste hiru asteburutan zailtasun maila bat duten bi eguneko irteerak antolatu dituzte, ekainean eta uztailan Pirinioetara eta irailean Picos de Europa. *"2.000 metrotik gorako mendiak egingo ditugu horrelakoetan"*. Tarte izango da mendiko eskiarentzat ere, *"seguruenik martxoko aste-buru batean, baina oraindik lotu gabe dugu, eguraldiaren arabera antolatzen ditugulako horrelakoak"*.

Irteera teknikoak ez dituzte baztertzen Klub Deportiboko mendi batzordekoek eta egun bateko horrelako bi antolatu dituzte aurten: *"Untzillatxeko diagonal handia egingo dugu maiatzean eta Mugarrako ertza irailean"*. Eta, horiez gain, Eketegekiko Mariren kobara joango dira azaroan, espeleolo-

gia egitera. Eta arroila jaitsiko dute Artazulen, maiatzean.

Pioleta eta kranpoiak erabiltzeko ikastaroa ere eskainiko dute, hilabete honetan bertan eta, aurrekoek gain, aurten eskola arteko ibilaldi neurtua ere dagokie antolatzea Klub Deportibokoei. Debarrenan egin beharreko umeen mendi-irteera hori martxoan egingo dute. Kalamua Korrikalari Taldekoek, bestalde, urtaro ba-koitzean antolatzen duten trail-ekin jarraituko dute, *"otsailean, maiatzean, urrian eta abenduan egingo ditugunak"*.

Aipatutakoek gain, mendi batzordekoek ez dituzte ekitaldi kulturalak baztertuko eta aurreko urteetakoekin jarraituko dute: *"Mendi jardunaldiak antolatuko ditugu martxoan, bi astetan, eta jardunaldi mikologikoak izango ditugu urrian"*.

GASOLEOEN BANAKETA

20.000 L.

2.000 L.

24 ordu

Otaola etorbidea, 13-Bis

GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA

Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

Egurrezko eta kartoizko enbalajeak

Solozabal-industrialdea - Pab. 34. ZALDIBAR

Tel. 94 682 73 43 embalarri@embalarri.com

Euskal Herriko Itzuliak hainbat aldaketa izango ditu

asterketaren interesari azken uneraino eusteko asmoarekin”, proba antolatzen duen gure herriko lan-taldea kazken ukituak ematen dihardu orain arte prestatutako ibilbideari eta “hilaren amaieran” aurkeztuko dute ibilbide zehatza. Julian Erasok gidatzen duen taldeak oraingoan erlojupekoarekin hastea erabaki du, azken aldiz 1977an egin zen moduan. Urteak dira antolatzaileek erlojupekoa azken etaparako lagatzen zutela; azken edizioan, baina, laugarren egunera aurreratu zuten. Oraingoan, beraz, aldaketa sakonagoa izango da, “zaleek ere nahiago dutelako”. Zumarragako etapa horrek 12 kilometro izango ditu eta Antio igoko dute: bi kilometro eta erdiko luzera duen igoerak batzbesteko %9,6ko pendiza du eta, tartean, %20tik gorako aldapak ditu.

Apirilaren 8an hasi eta 13an amaituko den probaren bigarren egunean Zumarragatik Gorraitzera joango dira txirrindulariak eta amaieran sterratoa izango dute protagonista. Asfaltatu gabeko hiru zatiri egin beharko diete aurre: “Hala ere, ez dute arazo handirik izango, terreno laua delako, eta ahal den neurrian bidea eroso egiten ahal eginduko garelako”. 23 urtetik azpikoen azken Nafarroako Itzulian pasatu ziren bertatik eta ez zen arazorik izan. Bestalde, azken Giroan Froomek horrelako ibilbide bat baliatu zuen, Colle delle Finestren, maillot arrosaz amaitzeko; Tourrak ere lehen aldiz sartu zuen antzerako ibilbidea uztailean, Plateau des Glières-en; eta, aurrekoekin lotuta, aurten jokatu beharreko Espainiako Itzuliak asfaltatu gabeko tramoak izango ditu Andorran. Nafarroak Egues bailaran amaituko den bigarren etapa horren ondoren, hirugarrenak Sarriguren eta Gasteizko Estibalitz lotuko ditu, gainean izango duen amaieran. Eta laugarren etapa Gasteizen hasi eta Arrigorriagan amaituko da, “seguruenik sprintean erabaki daitekeena”.



Roglic-ek Izagirre eta Landarekin osatu zuen Euskal Herriko Itzuliaren azken podiuma.

Eta azken bi etapak Eibar izango dute protagonista beste behin, “aurten amaituko den konpromisoari heltzeko”. Orain dela lau urte Eibarko Udalak Itzuliaren amaiera hartzeko hautua egin zuen lau urterako. Horrela, barixakuko etapak Arrigorriagatik Arrateko gainera ekarriko digu Itzulia. Eta zapatuko azkena Untzagan hasi eta Toribio Etxebarria kalean amaituko da, “gorabehera handiko 120 kilometro ingururekin”. Antolatzaileek diotenez, “bai bezperan, bai azken etapan, ezusteak izango dira. Beti ahalegintzen gara zaletuei gauza berriak eskaintzen eta orain ez da gutxiagorako izango: Eibartik gertu dauden eta inoiz pasatu ez ditugun bide berriak eza gutuko ditugu”, dio Erasok.

Bestalde, abuztuaren 3an jokatu den Donostiako Klasikoaren egunean ere erronka bereziari egin beharko diote Eibarko antolatzaileek, “egun berean emakumezkoen Klasikoa ere jokoan izango delako”. Proba horretako lehenengo edizioa izango da aurtengoa eta egun berean jokatu diren proba biak antolatzea “ahalegin berezia eskatzen du, bai ibilbide bai ordutegiaren aldetik”.

2018ko txirrindularitzari errepasoa

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen egutegiaren barruan, azken denboraldiko berri aipagarriena hori izan zen, estatuan dagoen afizionatuen mailako probarik garrantzitsuena bertan behera laga behar izan zutela lehenengoz. Horrez gain, Bauqeko Ibon Aldayk bereganatu zuen junior mailako Udaberri Saria, Asier Pozok kadeteen Txirrindularitza Elkarteko Ikolan-Lanaldi II. Saria, Jon Barrenetxeak juniorrendako San Juan Saria eta, lehen aldiz antolatutako Eibar Hiria emakumezkoen lasterketan, Sara Martinek irabazi zuen proba nagusia, Andere Basterrak junior elite 23 urtetik azpikoa eta Garazi Estevezek kadete mailakoa.

Euskal Herriko Itzulia Primoz Roglic-entzat izan zen eta Enric Mas nagusitu zen Arraten eta Omar Fraile itzulia amaitu zen T. Etxebarriako helmugan. Eibar Energia Hiria Debarrenak, bestalde, 23 urtetik azpiko elite mailako taldea atera zuen, eta Mikel Mujika (errepidean) eta Urko Senerena (pistan) nabarmendu ziren. Aitor Hernandezek, bere aldetik, XCO Euskadiko txapela jantzi zuen.



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar



Saskibaloiaeren aro berria

Inoiz baino jende gehiagok jokatzen du saskibaloian Eibarren. Zortzi talde ditu aurten Eibar Saskibaloia Taldeak eta herrian saskibaloia hizia orain dela urte asko landatu bazen ere, aurten loratu da, bat-batean. Avia petrolio-sektoreko enpresak zeresana izan du taldearen hazkundean eta klubaren arduradunek ilusioz begiratzen diote etorkizunari.

KA 1173 Eibar Saskibaloia Taldea 2000. urtean sortu bazen ere, 2003an hasi zen jokatzen federatu mailan. Kluba Eibarko saskibaloia zaletuen ligako jokalaria ohie lehiaketa-plataforma bat eskaintzeko asmoz sortu zen eta Katu Kale taberna izan da taldearen

babesle nagusia ordutik. Senior mailako taldea bakarrik eduki zuen klubak 2016. urtera arte, baina hainbat gurasoren eskaerak entzun eta klubak saskibaloia-eskola sortzea erabaki zuen orduan. 2017an infantiletako eta alebiletako talde bana atera zituen, seniorraz gain, eta aurten apustua ia hirukoiztu eta zortzi talde ditu.

Herriko gazteenek saskibaloian jokatzen duten gogoan Avia enpresaren babesarekin batera etorri da eta herrian inoiz ikusi den saskibaloia-proiektu handiena jarri du martxan aurten KA 1173 Eibar Saskibaloia Taldeak. Izena ere aldatu du, eta Avia Eibar Saskibaloia deitzen da orain. Klubaren izpiritua, ordea, ez da aldatu. *"Saskibaloia ez da euren helburua"*, Fernando Valenciano presidentea esan digun bezala, baina saio honetan hasitako aroak ikuspegi berriak ireki dizkio klubari.

Babesleen laguntza

Aviaren babesa berebizikoa izan da arlo ekonomikoan. *"Bizi eman digu"*. Bestela, ia ezinezkoa izango litzateke klubak zortzi talde edukitzea. Kirol-talde ia guztietan gertatzen den bezala, jokalariek diru-kopuru bat ordaindu behar izaten dute urteko gastuak ordaindu ahal izateko, *"baina Aviaren laguntza bikaina izan da guretzat, talde guztientzako ekipamendua erosi ahal izan dugulako"*. Beraz, gastu orokorrak murriztu egin dira.

Izen berriarekin kamiseta berriak etorri dira, baina seniorretako taldeak Katu Kale izena mantentzen du elastikoan, tabernak taldea babesten jarraitzen duelako. Gainera, hurrengo denboraldian berriz ere protagonismo handiagoa hartu dezake Katu Kalek. *"Datorren denboraldian ez dakigu Aviak jarraituko duen eta, horregatik, Katu Kalekoie eskatu genien ahal den heinean taldea babesten jarraitzeko. Gutxienez ekipamendua erosi eta zortzi taldeen sorrerarekin oinarri sendoa lortu dugu aurten Aviaren laguntzarekin"*. Hurrengo urtean ikusiko dute zer gertatzen den.

Entrenatzeko toki gutxi

Fernando Valenciano da AVIA Eibar Saskibaloia taldearen presidentea, baina bere emazteak eta hainbat jokalariren gurasoek laguntza handia eskaintzen diote. *"Gainera, ezin dugu Iñaki Sanchez ahaztu, hainbat urtetan seniorretako taldearen gidaritzan lan handia egin duena, baita gaur*



Senior mailako lehen taldea. Ezkerrean, Fernando Valenciano klubeko presidentea; eskuman, bestalde, Iñaki Sanchez entrenatzailea azken urteotan.

egun ere”, Valencianoren berbetan. Bat-batean zortzi talde atera dituztenez lan handia pilatu zaie klubaren arduradunei eta aholkularitza jaso behar izan dute, baina ondo konpontzen ari dira.

Entrenatzeko orduan sortu zaizkie arazo handienak. “Eibarrek arazo handia dauka zentzu horretan. Eskubaloiko hamasei talde daude eta saskibaloiko zortzi, eta Ipuruako kiroldegiko kantxa da dagoen zelai publiko bakarra (Hezkuntza Esparrukoa Gipuzkoako Foru Aldundiarena delako). Kiroldegiko goiko pisuan dagoen kantxa berdean, bestetik, gimnasia erritmikokoek entrenatzen dute”. Hezkuntza Esparruan, Amañako ikastetxean eta ahal duten tokian entrenatzen dute, baina orain arte ondo moldatu dira. “Argi daukat Udal Kirol Patronatuak ahal duena egiten duela, baina Udalak ez du ikusten instalazioen kontuan motz geratu garela”.

Partiduei dagokienez, ordea, klubeko talde txikienek Ipuruako kiroldegiko beheko pisuan dagoen kantxan jokatzen dituzte neurketak (squash pisten alboan) eta beste taldeek goiko pisuan, lehen aipatutako kantxa berdean. “Kontua da hor ez dagoela tokirik, eta kanpoko taldearekin datozen gurasoei hainbat aulki jarri behar izaten dizkiegu”.

Hazkunde handia denbora gutxian

Entrenatzeko tokia bilatzea zaila izan da, baina zortzi talderentzako entrenatzaileak bilatzea ere ez da erreza izan. Lehen taldeko lau jokalarik hasi dira harrobiko taldeetako entrenatzaile moduan eta, horretarako, hainbat ikastaro egiten ari dira. Bestetik, hainbat gurasok ere dihardute entrenatzaile lanetan.

GBC-k Illunben jokatu beharreko partidu baterako gonbidapena egin zaien.



“Denbora gutxian taldea asko hazi da eta baliabideak behar genituela ikusi dugu, instalakuntzetan eta pertsonalean. Kontua ez da haztea, kalitatea eskaintzea baizik”.

Alebinetako ‘errendimendu’ mailako mutilen talde bat, alebinetako ‘partaidetza’ mailako neska eta mutilen talde bana, infantil txiki mailako talde misto bat, infantil handi mailako talde misto bat, emakumezkoen eta gizonezkoen kadeteetako talde bana, eta seniorretako talde bat ditu gaur egun Avia Eibar Saskibaloia taldeak. Joan den denboraldian senior mailako taldeak puntu bakarrera eduki zuen mailaz igotzeko aukera eta aurten oso ondo hasi du urtea. “Igotzeko aukera daukagu”, Valencianoren ustez.

“Emakumezkoen hainbat talde ditugu eta hori oso zaila da. Kadeteen taldea, gainera, oso-osorik etorri zitzaigun iaz. Saskibaloian jokatu nahi zuten eta guk taldea atera genuen jokatu zezaten. Oso pozik dabil-tza!”, dio Valencianok. Presidenteak azaldu bezala, Espainian emakume gehiago dago saskibaloian federatuta foballean baino.

Orain arte estatistika hori ez da gurean islatu, baina Eibarko neskek ere saskibaloian egitea nahi dutela ikusi da. “Saskibaloia kirol atsegina da, toki estalian jokatzen da, eta Eibarren bazegoen saskibaloia inguruko zaletasuna, baina jendeak ez zeukan izena non eman. Orain, guk aukera hori eman diegu eta horren ondorio dira aurten atera ditugun zortzi taldeak”.

Avia Eibar Saskibaloia taldeko arduradunak pozik daude klubak hartu duen bidearekin eta, garrantzitsuena dena, jokalaria saskibaloiaz gozatzen ari dira. Horren erakusgarri izan zen ekainean Untzagan egin zen saskibaloia festa. “Aurten ere antzeko ekintza bat egiteko asmoa daukagu. Saskiak jarriko ditugu, jokatzeke aukera egongo da, lehiaketak, taberna bat jarriko dugu... polita da saskibaloia kalera ateratzea”. Jende gehiago taldera erakartzeko balio badu, primeran, baina aurretik taldeari buruzko informazioa jaso edo taldean izena eman nahi duenak saskieibar@gmail.com helbidean lortu dezake informazioa.

Centro de fisioterapia



Manu Sánchez



KIROL
FISIOTERAPIAN
ADITUAK

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Kirol-masajea eta terapeutikoa
- Errehabilitazioa
- Kirol lesioen tratamendua
- Elektroterapia

Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)



SD EIBAR



DMITROVIC, COTE, P. LEÓN, P. OLIVEIRA, JORDÁN, SERGI ENRICH, N.E. G. ANDUEZA, X. VALENCIA, T. PEÑALBA, A. FERNÁNDEZ, J. ANUZITA, I. BEA, J. L. MENDILIBAR, M. CALVO, I. DIEZ, ARBILLA, P. DIOP, HERVÍAS, CUCURELLA, ORELLANA, R. PEÑA, DE



AR 18/19



J. E. RAMIS, SERGIO A., R. BIGAS, CHARLES L. C., ESCALANTE, RIESGO
AR, A. GOROSTIZA, T. RUIZ, A. AZKARGORTA, M. SÁNCHEZ, B. JUL, X. MORENO, U. ORMAZABAL
DE BLASIS, J. CALAVERA, M. CARDONA, KIKE G., PERE MILLA, ZAPICO, A. GANDIAGA



2018 — abenduak — 31

Eibarko XXIV. KIROL SARIAK

Urtero lez, Gabon Zahar egunean Eibarko Kirol Sarien banaketa egin zen Coliseoan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako aukera hori aprobetxatu zen urte guztian zehar gure herriko kirol taldeek egiten duten lan nekaezina saritzeko. Guztira 30 sari banatu ziren: 27 kirol modalitate, sari berezia, euskerakoa eta sustapena.



Sari berezia
DAVIDE CERCHI



Euskera
DOROTEO URKIA



Sustapena
CDR



Arku tiraketa
OIER LUENGO



Atletismoa
MARKEL GUTIERREZ



Automobilismoa
ANTON BEROIZ



Errugbia
LUCIA MOYA



Eskia
ILAZKI CHACON



Eskubaloia
AMAIA SAN MARTIN, ANE MONTIEL, IRUNE DE CASTRO, MALEN AJA, NAHIA BASTERRA



Gimnasia Erritmikoa
AINHOA BIZKARRA, IZARO ALTUNA, ANE PORTU, MAIDER DIEZ, ARRATE BASKARAN



Foballa
JOSE MARI ARRIZABALAGA



Golfa
ASIER GONZALEZ



Herri Kirolak
HODEI EZPELETA



Hiru Txirlo
JOSEAN BLANCO



Igeriketa
RUBEN TORRES



Judoa
MIKEL TXAKARTEGI



Jugger
MARTIN ARANBURU



Karatea
INDAR GONZALEZ



Mendia
100 MENDI EDERRENAK



Pilota
MIKEL AZKARGORTA



Saskibaloia
O. ARRIOLA, L.C. ETXEBERRIA



Silbestrismoa
ALBERTO ZARZOSA



Squash
MIGUEL CABANILLAS



Tenisa
LUR IBARGUTXI



Tiro Olimpikoa
LORENZO MOYA



Triatloia
MOISES ALTUNA



Txirrindularitza
MIKEL MUJIKA



Waterpoloia
M. BASTERRIKA, I. EGIDAZU, U. UNZETA



Wu-Shu
ANDONI MORGAGE



Xakea
AITOR BEORLEGI

Eibar Foball Taldeak neurria ematen jarraitzen du maila guztietan

Azken denboraldia arrakastatsua izan bazen, 2018-19ak orain arte eskaini duenak ez du ematen gutxiagorako izango denik. 1. Mailan jokatzen duen Mendilibarren taldeak sei puntura ditu jaitsiera postuak, baina azken aldian joko hobea eskaintzen dihardu emaitzak baino: Real Madrili Ipuruan 3-0 irabazi zionetik partidu bat galdu du eta beste laurak berdindu ditu. Badaezpada ere, ate aurrean gehiago asmatzea ondo etor dakioko. Eibar Urko probintziako Ohorezko mailara igoberria liderra da, bigarrenarekiko bost puntuko aldearekin, eta horrela amaituz gero 3. mailara igo daiteke. Victoria filiala da larri dabilen bakarra, 2. B mailako azken postuan, eta maila galtzeko arriskuarekin. Harrobiari erreparatuta, jubenil mailako lehen taldea seigarren da Ohorezko Maila Nazionalean, Realaliderrengandik sei puntura; maila bereko bigarren taldea bosgarren da Euskal Ligan jokatzen duen bere lehen denboraldian; eta aurten sortutako jubeniletako hirugarren taldeak indartsu hasi du Gipuzkoako Ohorezko mailara igotzeko fasea, sailkapeneko partidurik galdu gabe amaitu ondoren. Kadeteetan ezusteko polita eskaini digu lehen taldeak, lehen itzulia amaituta neguko txapeldun amaitu baitu Euskal Ligan. Ohorezko infantil mailako taldea, bestalde, liderra da alde handiarekin, eta alebin mailako taldeak lehenengo



Gorengo Erregional Mailako Eibar Urko liderra da gaur egun.



1. Erregional mailako Urki.



1. Erregional mailako Eibartarrak.

postuan jarraitzen du sailkapen multzoan.

Emakumezkoen taldeak ez dira atzean geratzen eta 2. Mailan jokatzen duen lehen taldeak 1. Mailara igotzeko fasean parte hartzeko asmoz jarraitzen du, sailkapenaren go-rengoan Alavesekin berdintuta momentuz. Lurrealde mailan jokatzen duen bigarren taldea 3. da Gipuzkoako Ohorezko mailan, Realaliderrengandik sei puntura; maila bereko bigarren taldea bosgarren da Euskal Ligan jokatzen duen bere lehen denboraldian; eta aurten sortutako jubeniletako hirugarren taldeak indartsu hasi du Gipuzkoako Ohorezko mailara igotzeko fasea, sailkapeneko partidurik galdu gabe amaitu ondoren. Kadeteetan ezusteko polita eskaini digu lehen taldeak, lehen itzulia amaituta neguko txapeldun amaitu baitu Euskal Ligan. Ohorezko infantil mailako taldea, bestalde, liderra da alde handiarekin, eta alebin mailako taldeak lehenengo

Eibar FT-k 18 talde ditu guztira, iaz baino hiru gehiago: 10 gizonetzkoenak dira, 177 jokalarirekin; lau emakumezkoenak, 83rekin; eta Eskola Foballean 183 neska-mutil dabilta. Jubenil mailako hiru talde dituzte aurten, eta kadete, infantil eta alebin mailetak bina. Aurten foball inklusiborako taldeak ere sortu dituzte, Mikel Romarate-ren ardurapean. Bestalde, akziodunek Areitioren alde egin zuten eta Ainhoa Alonsok foballa laga zuen lehen taldean hainbat denboraldi eman ondoren.

Urkik eta Eibartarrak-ek herriko foballaren alde jarraitzen dute lanean. Biek dute talde bat Erregional 1. Mailan eta, horrez gain, Urkik jubenil, kadete eta infantil mailetak bina ditu, infantil txiki eta alebin mailako taldeekin batera. Eibartarrak-ek, bestalde, kadete mailako bi talde ditu, jubenil, infantil eta alebin mailetak bina dituzte.



GUILLERMO SORRIQUETA BARCENA

I. URTEURRENA: 2018-I-8

“Beti gure bihotzean”

Maite, Ricardo eta senideak



Taldekako kirolak indartsu jarraitzen du hainbat modalitateetan

GIMNASIA ERRITMIKOAN

Ipuruak talde federatu berria sortu du infantil oinarri mailan, estatu mailako torneoetan jubenil oinarritzkoa, junior eta senior taldeekin parte hartuko duena. Eurekin batera, beste bederatzi taldek hartuko dute parte eskola eta amateur txapelketetan. Azken urtean junior taldeak 6. postua lortu zuen Espainiako txapelketan, bost zintekin egindako lanarekin. Senior mailako taldeak 18. postua eskuratu zuen.

Aurrekoetz gain, senior mailako taldeak urrezkoa eskuratu zuen Euskalgym txapelketan, Euskadiko azpitxapeladun izan ziren eta 10.ak Espainiako Kopan. Oinarritzko kadete taldeak Gipuzkoako txapelketako urrezkoa bereganatu zuen, baita Nafarroako Kluben Artekoa ere eta zilarrezkoa irabazi zuten Euskadiko txapelketan. Junior mailako taldeak, bestalde, urrea izan ziren Gipuzkoako txapelketan, zilarra Logroño Hirian eta brontzea Euskadiko txapelketan eta Nafarroako Kluben Artekoan. San Andres Torneo bikaina jokatu zuten talde guztiek.

ERRUGBIAN Ohorezko B Mailan jokatzen duen gizonzkoen lehen taldea sailkapeneko erdialdean dago. Carrara, Carrizo eta Zapateria jokalariek berriek indarra eman diote taldeari, baina zaila egiten ari zaie hortik aurrera egitea Gaston Ibarburu eta Mauro Amorrén mutilei. Emakumezkoen taldeak, bere aldetik, denboraldi ho-



Talde federatuek emaitza bikainak lortu dituzte torneo guztietan.



Senior mailan Eibar Rugby Taldeak bigarren talde bat ere badu.



Elgoibarko Alcortari irabazi zion Somos Eibar Eskubaloiko taldea.

netan jokatutako partidu guztiak irabazi ditu, multzoko lehenak izan eta datorren denboraldian Ohorezko B Mailan jokatzekeo asmoa betetzeko borroka horretan. Zazpiko errugbian ere garaipen asko lortu zituzten aurreko denboraldi amaieran. Eibarko errugbiaren akademian, bestalde, bidea egiten jarraitzen dute 18, 16, 14, 12 eta 10etik beherako talde guztiek.

ESKUBALOIAN 1. Maila Nazionalean jokatzen duen Somos azken urteotan baino larriago dabil sailkapenean, azken postuetatik ihes egin nahian. Jokalari asko galdu ditu azken aldirian (Mikel Zabala, esaterako, Bidasoan dago), berriak sartu dira taldean eta euren tokia lortu arte denbora beharko du Fernando Fernandezek. Haritza bigarren taldea goi postuetan dago probintziako 1. Mailan eta azken denboraldian ere Euskal Ligara igotzeko play-offa jokatu zuen.

FOBALL-ZALETU arloan Bar Txokok irabazi zuen azken Liga, baita Eibar eta Ermuko irabazleen artekoa ere eta Kopako finalean Garajes Garciarekin galdu zuen finala.

JUGGER kirol-modalitate berriak ordezkaria du gure herrian eta Arima Galduak taldeak estatu mailako ligaren lehenengo partiduak jokatu ditu.

SQUASH -ean Alberto Ferreirok aurrean jarraitzen du Euskal Herri mailan eta Klub Deportiboak Euskadiko txapela jantzi zuen taldeka.

MARIA ETXEBERRIA CHAPARTEGUI "MIREN"

Gaspar Alvarez-en alarguna

I. URTEURRENA: 2018-I-6

"Zure irribarre eta samurtasuna betirako izango dira gure artean"



Pistetatik igerilekuetara, bikain erantzun dute gure kirolariek

ATLETISMOAN Odei Jainagak indartsu hasi zuen urtea min hartu aurretik eta Euskadiko eta Espainiako marka berriak ezarri zituen, Berlinen jokatu beharreko txapelketarako txartela eskuratuz. Horrez gain, Klub Deportiboko ordezkariak emaitza bikainak eskuratu zituzten Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan; horren adibide Eneko Osorok jubeniletan eta Markel Gutierrezek juniorretan martxan lortutako Euskadiko txapelak. Ainhoa Sanz eta Jose Antonio Blanco nagusitu ziren azken Bolunburu krosean eta gauza bera egin zuten Aitziber Urkiolak eta Pello Osorok Simon Aldazabalen, 42 parte-hartzaileekin. Galdaramiño igoeran Alazne Irureta eta Ibai Makazaga izan ziren lehenak helmugaratzen. Eta Ander Barrenetxea eibartarra nagusi izan zen Aramotz mendi-lasterketan. VI. Asier Cuevas herrilasterketan 196 kirolari izan ziren parte hartzen eta 120 eibartar izan zituen Behobia-Donostia maratoni erdiak eta gure herriko beste 106 emakume 29. Lilatoiak. Lau eibartarrek jardun zuten, bestalde, Zegama-Aizkorrin eta beste hiru horren bezperako Kilometro Bertikalean.

TRIATLOIAN Pello Osorok ia hobetu ezin daitekeen denboraldia egin zuen eta, batez ere, neguko triatloian podium mardoa zapaldu zituen. Horrela, hirugarren izan zen Espainiako Triatloi LD txapelketan eta Euskadiko neguko triatloi txapela jantzi zuen, Europako txapelketan zortzigarrena izateaz gain. Ane Ziaranek, bestalde, Espainiako txapela jantzi zuen Saltoki taldearekin taldekako neguko triatloian. Azkenik, Eibarko 27. Duetloiak 134 parte-hartzaile izan zituen, eta Hele-ne Alberdi eta Urko Herran izan ziren garaile.



Imanol Egidazu onena izan zen asteburuan jokaturako Euskadiko proba konbinatueta txapelketan, 16 urtetik beherakoan mailan. Iñigo Egidazu bigarren izan zen 60 metroan eta irabazle 200 eta 400 metrokoetan. Azkenik, Roberto Gartzia hirugarren amaitu zuen Master 3.000koan.



Emakumezkoen Urbat-Urkotrik gero eta finkatuago dago lehian.



Eibar Igerixan-ekoek proiektu berriei ekin diete azken denboraldian.

WATERPOLOAN izugarri egin dute gora Davide Cerchik zuzentzen dituen talde guztiek eta senior mailako talde biak, gizonzkoa zein emakumezkoa, Euskal Herriko onenetakoen artea dira gaur egun. Gizonzkoen taldeak Kopako finala galdu zuen gutxigatik Portugaleten, bertako Nauticoren aurka jokaturako partidu bikainean. Urbat 3H-ko emakumezkoen taldea, bestalde, bosgarren izan zen 2. Mailako Espainiako txapelketan eta gaur egun lider da Euskal Herriko ligan. Gipuzkoako selezioaren bizkarrezurra, bestalde, eibartarrez osatuta dago. Jubenil, infantil mistoa, alebin eta benjamin mailetakoko taldeak onenen artean daude.

IGERIKETAN Eibar Igerixan taldekoek marka pertsonalak hobetu dituzte denboraldi guztian eta izan dira Espainiako txapelketetan parte hartu dutenek ere, Maite Barruetabeña eta Jon Osa kasurako. Horrez gain, aurten igeriketa sinkronizatuekin hasi dira, kirol egoitua bultzatzeaz gain. Unax Unzetak Donostiako Badiaren Zeharkaldia irabazi zuen.



MANUELA RODRIGUEZ FERNANDEZ

I. URTEURRENA: 2018-I-11

“Beti izango zaitugu gure bihotzetan”

ZURE FAMILIA



Euskal tradiziozko kirolek ere euren ezaugarriari eusten diete

PILOTAN Aspe Eibarko enpresak profesional mailako ia txapelketa guztiak bereganatu ditu eta, horrez gain, Astelena katedralean eskainitako azken jaialdian zaletuek erruz erantzun dute eta frontoia bete. Bestalde, Klub Deportiboko pilota batzordeak asko indartu du pilota-eskola eta neska-mutil askok dihardute praktikatzen, gurasoekin egindako hainbat irteerekin batera. Emakume Master Cup-aren finala ere Eibarren jokatu zen eta jendea kanpoan geratu zen, toki barik. Gure herriko pilotarien artean, Azkargorta-Camina bikoteak lortu ditu emaitza onenak.

HIRU-TXIRLOAN ez da urte onena izan Asola Berriko ordezkariarentzat, bai Gipuzkoako eta baita Euskadiko txapelak ere ihes egin dielako. Gipuzkoako Floreagako Gorka Etxanizentzat izan zen, Euskal Herriko Elgoibarko Angel Ibarluzearentzat, eta Lasturreko Roman Arrizabalagak irabazi zuen Lehendakari Txapelketa. Bestalde, Olatz Rodriguez eta Beñat Gomez nagusitu ziren Arraten. Ipuruako bolatokiak, urtero moduan, bolo-palma torneo hartu zuen.

HERRI-KIROLETAN Eibarko Euskal Jokoak-eko Hodei Ezpeletak garaipen eta marka handiak lortu ditu eta aizkolari onenen artean dago gaur egun. Mendaron bizi den Sonia Archeli eibartarrak, bestalde, zilarrezko bat eta brontzeko bi irabazi zituen Txinan jokatutako sokatira mundu-txa-



Pilota Eskolako neska-mutilak euren gurasoekin irteera batean.



Asola Berriko bolariak hainbat txapelketatan hartu dute parte.




Sanjuanetako Euskal Jaialdian Bihurrik ez du inoiz kalerik egin.

pelketan, Gasteizko Badaiotz taldearekin. Eta Iñigo Jimenez harri-jasotzaileak Cortinak 200 kiloko harriarekin egindako markara heltzeko asmoa du. Hortik aparte, Sanjuanetako Euskal Jaialdia, Sanandresetako torneo eta San Isidroko herri-kirol torneoak beste urrats bat eman dute, Arrateko idi-probarekin batera.

EKIALDEKO KIROLEI dago kienez, Kalamuakoen urteroko egitarau zabalekin jarraitzen dute, hainbat torneotan parte hartzen. Judoa, karatea eta jiu-jitsu modalitateak landu dituzte batez ere, eta Eibarren jokatzen den jiu-jitsu Kopa goraitua izan zen estatu mailan; bertan Eibarko ordezkariak 11 domina irabazi zituzten. Gipuzkoako judo txapelketetan, bestalde, 12 irabazi zituzten Kalamuakoen. Josu Huarte bosgarren izan zen Europako jiu-jitsu eta ne-waza txapelketetan. Eta Manu Agirrek egindako ibilbidearen saria jaso zuen Kirola Galan. Ttatt gimasioko Sergio Osua eta Andoni Morgade eibartarrak, bestalde, Sanjuanetako boxeo eta sanda jaialdian hartu zuten parte, eta baita irabazi ere.

MOTORREAN Aitor Montorok hirugarren postuan amaitu zuen 1.000cc-ko Super Bike mailan, pare bat proba irabazi ondoren. Automobilismoan, bestalde, Pandemonium Raidaren VII. edizioa abiatu zen Eibartik, Garajes Garciakoen parte-hartzearekin; aurten ere hartuko dute parte.



*Sinestezina dirudi dagoeneko lau urte pasa direla,
zure bizipozak bizirik jarraitzen baitu.
Orain eta beti.
Asko maite zaitugu,
Zure Kuadrilla*

*Mireia Ormaetxea Luis
4. Urteurrena
15/01/14*



PEDRO ARRIOLA: "Ipuruan edurtza erdian".

Eñaut Elorrietak, beti geldiezin eta erronka berriei ekiteko gogoarekin, zuzenean interpretatzeko eta gozatzeko asmoarekin sortutako musika proposamen berria eskainiko digu Coliseo antzokian, urtarrilaren 18an, 20:30ean. Oraingo honetan, Ken Zazpi-ko abeslariarekin batera, Kaabestri String Ensemble, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko bost musikarik osatutako hari boskotea izango dugu eszenatokian. Beraz, bi biolin, biola, txeloa eta kontrabaxua, eta seigarren instrumentu bezala Eñaut Elorrietaren ahotsa. Denen artean "Harian", sentsazio berriak bizitzera eramango gaituen kontzertua eskainiko dute.



EÑAUT ELORRIETA:

"Kantuen esentzia erakusten dut, inolako artifiziorik gabe"

- Eibarko Coliseo Antzokia ezaguna duzu. "Deserriko kantak" aurkeztu zenuen orain dela 4 urte. Nolako lekua iruditzen zaizu?

Oso oroitzapen gozoak ditut. Jendea oso gertu dago, baina aldi berean leku eroso da. "Harian" bezalako formatoak aurkezteko oso leku aproposa iruditzen zait. Jendea eroso dagoen lekua bilatzen dut, denok lasai eta gertu egongo garen lekua. Proiektu desberdina da, arrisku-tsua eta biluzia. Eta horrelako lekua behar du, entzulea ere proiektuan eta kantuetan murgiltzeko, eta guk era egokien aurkezteko.

- Pop eta rock mundutik musika klasikora. Oraingoan, zurekin hari boskotea izango da: Oskar Lopez eta Igor Torre (biolinak), Arkaitz Martinez (biola), Paloma Torrado (kontrabaxua) eta Jon Larraz (txeloa). Aldaketa handia izan da?

Orkestra sinfonikoarekin egin genituen kontzertuetan gitarra elektrikoa, baxua eta bateria bezalako instrumentuak zeuden. Hari boskotearekin pausu bat gehiago ematen dela iruditzen zait, eta gehiago bilatzen da musika klasikoarekin egiten den uztarketa hori. Giroa guztiz organikoa da. Artistikoki ez daukat orain arte neukan

erritmo finko bat, baxuak edo bateriak eman dezaketenak. Erritmoaren kontzeptua malguagoa da, bisualagoa eta sentsazio flotante eta askeago bat bilatu nahi izan dugu. Erronka izan da, sentsazio bilaketa horretan seguru sentitzea, bertigoa gainditzea eta instrumentu bakar bat baina bezala fusionatzen jakitea.

- Azaroan eman zenuten lehen kontzertua Arriaga antzokian. Nola joan dira orain arte emandakoak?

Egiten ari garen kontzertu bakoitza bakana da, eta sortzen den giroa eta energia ere. Artistikoki hau oso interesgarria da. Helburua, proiektu honekin, nire ahotsa azentuan jartzea eta kantari bezala ohikoa ez den formato batean aritzea da, horrek azken finean helduleku berriak bilatzera eramaten zaituelako eta esperimentaziozko bide horretan zure burua frogan jartzen duzulako. Biluztasunean kantuen esentzia erakusten dut, inolako artifiziorik gabe.

- Beraz, pozik zaude jendearen erantzunarekin.

"Errepertorioa momentu honetako nire argazki eguneratua da"

Pila bat eskertzen dut jendearen babesa. Orain arte areto guztiak bete ditugu. Oraindik bukatu gabe dagoen proiektu bat da, kontzertuz kontzertu osatzen doa. Aldi berean, ulertzen dut jendeak hasiera batean hari baten gainean dantzan bezala ikusten nauela, oso hauskor, eta hori da bilatzen dena, hain justu: soken gainean dantza egitea eta, azkenean, soka horien gainean ekilibrioak egitea. Beti dago jaus-teko aukera eta ez dago sarerik, eta sentsazio hori jendeak jasotzen duela iruditzen zait.

- Errepertorioari buruz zer aurreratu daiteke?

Errepertorioa momentu honetako nire argazki eguneratua da. Ken Zazpirako sortu nituen hiru kantu, nire bakarkako ibilbidean sortu ditudanak eta beste lau kantu berri gehitu dizkiogu. Kolaborazio oso ederrak izan ditut, goi mailakoak. Fernando Velázquez da horietako bat, berak moldatu ditu kantu gehienak. Carlos Monfort mexikarrarekin ere beste moldaketa bat egin dut eta aspaldian mundu klasikoan buru belarri sartuta dagoen Juan Carlos Perezekin ere bai. Ur ezezagunetan sartu naiz proiektu honekin, baina ahalik eta jende hobeagoarengana hurbildu naiz.

“Los teloneros del chocolate” antzeziana estreinatuko dute etzi

“Umorez eta musikaz betetako eskaintza” izango dugu domekan Coliseo antzokian, La Red Teatro taldeak ezohiko ordutegian, eguerdiko 12:30ean estreinatuko duen “Los teloneros del chocolate” lanari esker. Maite Lorenzo eta Juanma Cano aktoreekin batera, oraingo honetan, Karmele Etxeberria eta Eibarko Koro Gaztea izango dira taula gainean. Sarrerak 5 euro balio du eta Kutxabank-en eta Coliseoko leihatilan eros daiteke. Lanaren egileek azaldu dutenez, “bi antzezlek, antzerki afizionatuaren konpainia bateko kide bakarrak, euren pieza txikiak entsaia-



tzen dituzte publikoaren txaloekin amestetan eta, aldi berean, besaulkien patio bati aurre egiteko bertigoa eurenganatu. Entsegu eta entseguren artean, euren testuengatik antzerkiari dioten maitasuna eta eszenategietara igotzeko duten grinaren sorburua kaleratzen dira. ‘Los teloneros del chocolate’ umore handiko eta musika ariketa bat da; baita antzerkia maitatzearena, eta Eibar maitatzearena ere. Ikuskizunak fokua ipini nahi du Kulturaren garapenak jasaten dituen arazoetan; hala ere, sasoko arazoak arazo, antzerkia beti aurrera irteten dela diote”.

Italiako masak egiten ikasteko tailerra antolatu dute urtarrilaren 23rako

Italiako masa esanguratsuenak egiten ikasteko eta dastatzeko tailerra antolatu du ...eta kitto! Euskarra Elkartek, Ortutik Ahora elkartearekin batera. Tailerra urtarrilaren 23an izango da, 19:00etan, ...eta kitto!-k Urkizun duen egoitzan. Irin ekologikoak erabilia, pizza, calzone-a eta focacciak egiteko

eta, ondoren, egindakoa dastatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek. Izen-ematea gaurtik hasita datorren urtarrilaren 21era arte egongo da zabalik. Izena emateko 943-200918 telefono zenbakira deitu edo elkarte@etakitto.eus helbidera idatzi daiteke. Ikastaroa helduentzat da eta plaza mugatuak dira eta 3 eu-



ro ordaindu beharko dira. Ortutik Ahora elkarteak aurreratutuz, “tailerraren helburua elikadura arduratsu,

osasuntsu, iraunkor, bidezko eta sortzaileak duen garrantzia nabarmentzea da, elikadura burujabetza ardatz hartuta”.




Photoshop ikastaroa euskaraz

Arrate Kultur Elkartek oinarrizko Photoshop ikastaroa antolatu du, euskaraz. Irakaslea Jose Luis Irigoien, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kidea izango da eta klaseak sei egunetan emango ditu (astelehen eta eguaztenetan, 19:30etik 21:30era, urtarrilaren 14an hasita), Arrate Kultur Elkartearen. Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa da (25 eurokoa bazkideentzat) eta izena emateko 638284912 telefonora deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke. Izena emanaz gero, ordenagailuan Photoshop, Bridge eta Camera Raw programak izatea komeni dela adierazi dute.

“Komikiak sortzen” ikastaroa DBHkoentzat

Udalak derrigorrezko bigarren hezkuntzako nerabeentzat komikiak sortzeko ikastaroa antolatu du. Otsaileko lau zapatutan,

**KOMIKI
IKASTAROA**




arratsaldetan burutu-tan, arratsaldetan burutu-tan da ikastaroa eta Martin Azpilikueta ilustratzaileak emango du. Ikastaroa doakoa da, baina parte hartzeko alde aurretik izena eman beharko da, urtarrilaren 18tik 27ra bitartean, Indianokua gaztelekuan. Argibide gehiago behar izanez gero, zuzenean Indianokua gaztelekuan galdetu daiteke edo, bestela, 688 682 372 telefono zenbakira deitu daiteke.



Sanjuanetan ETBk grabatutako kontzertua interneten ikusgai

Eguberri egunean eman zuten ETB1eko "Oholtza" saioan Eibarren, San Juan jaietan (ekainaren 22an) Untzagan grabatutako kontzertua. Emanaldi horretan Trio Medianoche, Sostoa Abesbatzak eta Eibarko Koru Gazteak jardun zuten kantuan eta, horrez gain, Sergio Sanabria abeslariak eta Joxe Mari Orbegozoren Azpeitiako Dantzaki dantza eskolako dantzarien parte hartzea izan zuen ikuskizunak. Eibarko Udalak eta Euskal Telebistak antolatutako ikuskizunean aintzinako eta gaur egungo abestiak uztartzen dira eta, nahi izanez gero, saioa interneten ikus daiteke, Eitb Nahieran barruan "Oholtza" saioak duen atalean (www.eitb.tv/es/video/oholtza).



Coliseoaren Laguna txartela eskainiko da 2019an ere

Orain arteko martxan, txartelari esker Udalak antolatzen duen edozein ikuskizunerako eta Coliseoko zine emanaldietako sarreretan %30eko beherapena lortu daiteke (deskontuak bateraezinak dira eta 5 euro edo gutxiago balio duten sarreretan ez da beherapenik izango). Urtebeterako balioa dute txartelek eta izendunak (pertsonek) dira. Titular bakoitzak sarrera bat eskura dezake ikuskizun bakoitzeko, eta txartela erakutsi behar du sarrerarekin batera barrura sartzean. Interesa duenak Pegoran eskatu dezake txartela, baita informazio gehiago ere. Bestalde, aurretik txartelaren titularrak direnei gogorarazi nahi zaie urtariletik aurrera eskaintzen diren ikuskizunetan deskontua aplikatu ahal izateko 2019ko txartela aurkeztea eskatuko dutela.

"Zuk" dokumentalaren inguruko solasaldia

Eibarko Bilguneko egitarauaren barruan, eguaztenian, 18:30ean, "Zuk" (2017, Unax Blanco) dokumentala eskainiko dute eta, ondoren, solasaldia egingo dute Unax Blanco dokumentalaren zuzendariarekin. Bilgunean izango da, Bista Eder kaleko 2an. Lanek 2017. krisi migratorio gisa izendatu zuten hondamendiaren aurrean, hainbat boluntario-talde ekimen, egitasmo eta ekintza desberdinen baitan lanean ibili zirenen berri ematen du lanak eta protagonistak CEAR-Euskadi, Zaporeak, Ongi Etorri Errefuxiatuak edo Salvamento Maritimo Humanitario euskal erakunde, elkarte eta plataformetako kideak dira.



Umeendako marrazki-lehiaketa

Domekan, 16:30etik aurrera, XXIV. Gabonetako Marrazki Lehiaketa egingo dute As Burgas Galiziako Etxean. Lehiaketan 6 eta 12 urte bitarteko umeek har dezakete parte eta maila bi bereiziko dituzte (6-9 urte eta 10-12 urte). Maila bakoitzean hiru sari banatuko dituzte eta nagusien mailan lehen saria irabazten duen marrazkia hurrengo Gabonak zoriontzeko postalean erabiliko dute. Gainera, lehiaketa amaitzean, parte hartzen duten ume guztientzat txokolatea eta bizkotxoak banatuko dituzte.

Matrikulazioa zabalik euskaltegietan


Eibarko Udal Euskaltegian zein AEK euskaltegian euskera ikasi nahi dutenentzat matrikula epea zabalik dago. Batean zein bestean maila guztiak eta ordutegi zabala eskaintzen dute eta tarifa bereziak eta deskontuak daude. Informazio gehiagorako zuzenean euskaltegietara (Udal Euskaltegia, Portalea, 2. Solairua; AEK euskaltegia, Sostotarren, 1) jo edo deitu (943700912 / 943201379) daiteke.

FRANCISCO BERISTAIN ALBIZU "PATXI"

(I. URTEURRENA: 2018-I-12)

"MAITE ZAITUGU" -ETXEKOAK-

URTEURREN MEZA egingo da domekan, hilaren 13an, eguerdiko 12:00etan hasita, Karmeldarren parrokan.



Go!azen 5.0 ikuskizunaren emanaldi bikoitza

Bihar arratsaldean, 15:00etan eta 17:00etan taularatuko dute "Go!azen 5.0", Pausokaren ikuskizun arrakastatsua Coliseoan. Aurrekoetan bezala, musikala izaten jarraitzen du, telebistako seriearen abentura eta gertaerak jaso eta laburtzen dituen ego-kitzapena: "Naiak Royal School of Arts-en sartzeko ametsa bete zuen iaz. Elik eta Garrik, hainbat txarto-ulertzeren ondoren, elkarrekin amaitu zuten udalekuan eta Markelek Markel izaten jarraitu zuen. Baina guzti hori iragana da. Uda heldu da eta Basakabik atek zabaltzen ditu berriro, Zuzen zuzendari dela. Beste abentura batzuk, amodio-istorioak eta lagunen arteko gaizki-ulertu berriak, horietako batzuk umorez beteak eta beste batzuk negarra eragingo digutenak". Sarreak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Pagatxa elkartearen zine-forumak eta batzarra

Gabonak igarota, Pagatxa emakumeen elkarteak ohiko martxari heldu dio eta gaur arratsalderako zine-forum saioa antolatu du: 19:00etatik aurrera Tim Burton zuzendariaren "Big Eyes" filma ikusteko aukera izango da Portalean (areto nagusian). Ondoren, Izaskun Rodriguez Elkorok dinamizatuko duen solasaldia hasiko da. Jarduera doakoa eta irekia da eta Emakundek, Kutxak eta Udaleko Berdintasun Zerbitzuak diruz laguntzen dute. Astelehenean, berriz, "Emakumeen Istorioak" zikloaren barruan Pepa Flores (Marisol) ardatz izango duen bideo-foruma egingo da, 18:30ean, Portaleko ikastaro gelan. Jarduera Patricia Perex Cotok dinamizatuko du eta doakoa eta irekia izango da. Bestalde, Pagatxako bazkideen urteko batzarra martitzenean egingo dute, 17:00etatik 19:30era, Portaleko areto nagusian eta amaieran Kaleetan Kantuz eta Herrixa Dantza taldeek saioa eskainiko dute.



Jesus Maria Cormanen artelan erakusketa Portalean

Gaur arratsaldean zabalduko dute "Introspectiva", Jesus Maria Corman (Pasaia, 1966) artistaren erakusketa, Portalean. Otsailaren 3ra arte ikusgai izango den erakusketan azken bost urteetako lanen aukeraketa, alde batetik, eta Portaleko espaziorako pentsatutako eta egindako bere azken produkzioa, bestetik, batzen dira.

Izenburuak artista baten atzera begirako erakusketarako ezin ego-kiagoa den erakustoki batek eskaintzen duen paradoxarekin jokatzen du, kasu honetan, obra intimista baten zerbitzura, kanpora baino gehiago barrura begiratzen duen lanaren alde. Martitzenetik domekara joan daiteke ikustera, 18:30etik 20:30era.



Xabi Sarasketa Amuategi

Gure ondotik joan zara, baina zure irribarrea eta alaitasuna BETIRAKO izango dira GURE OROIMENEAN



Sigmako lehengusinak



Mugertza krosaren 76. edizioa ELGOIBARREN

Goizeko 10:00etan hasita, kirol-jaialdi handia izango da Elgoibarren domeka goizean, munduko eta Europako txapeladunak eta Olinpiar Jokoetan dominak irabazitakoak bilduko dituena. Mila atleta baino gehiago izango dira 95.000 euroko aurrekontua duen ekitaldian. Mintxeta Atletismo Taldeak antolatzen dituen proba nagusienak 12:30ean (7.620 metro izango dituen emakumezko seniorren proba) eta 13:10ean (10.800 metroko gizonezko seniorrena) hasiko dira.



Dokumentalak bihar SORALUZEN

Jairo Berbel elgoibartarraren "Raid Pandemonium" dokumentala proiektatuko da bihar Soraluzeke Herri Antzokian, 19:30ean. Dokumentalak Marokoko desertuan egiten den ibilgailu-lasterketa solidarioan hartutako irudiak erakusten ditu. Berbelek Fernando eta Antxon Garciairen parte-hartzea irudietan jaso eta "Raid Pandemonium" izenburuko lana ekoiztu du. Dokumentalaren aurretik Jairo Berbelek berak prestatu duen "Grande cuore Ibai" laburmetraia proiektatuko da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- M^a Teresa Isasi Mendikute. 78 urte. 2018-XII-28.
- Dionisio Velar Sagarna. 95 urte. 2018-XII-30.
- Carmen Rafael Pujol. 88 urte. 2019-I-1.
- Alberto Egialde Uranga. 60 urte. 2019-I-1.
- Blanca Larreategi Gorrotxategi. 79 urte. 2019-I-2.
- Xabi Sarasketa Amuategi. 61 urte. 2019-I-3.
- Antonia Marcilla Sanchez. 93 urte. 2019-I-3.
- Miguel Gallastegi Ariznabarreta. 100 urte. 2019-I-4.
- Miren Peña de Garikano Etxaniz. 85 urte. 2019-I-5.
- Emilio Alvarez Seoane. 94 urte. 2019-I-6.
- Juana Bollar Mendiolea. 94 urte. 2019-I-7.
- M^a Angeles Prellezo Rodriguez. 91 urte. 2019-I-7.
- Jose Ramon Cabello Ramirez. 87 urte. 2019-I-8.

jaiotakoak

- Maria Olaizola Lopez. 2018-XII-24.
- Ander Escudero Perez. 2018-XII-25.
- Dara Maialen Acela Garcia. 2018-XII-25.
- Yaneli Valdes Hernandez. 2018-XII-27.
- Haxat Mehdi Fikov. 2018-XII-27.
- Srina Gaimire. 2018-XII-28.
- Daniella Sanchez Castro. 2018-XII-29.
- Luka Garcia Otxandiano. 2018-XII-31.

farmaziak

- Barixakua 11
 EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Zapatua 12
 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 13
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Astelehena 14
 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Martitzena 15
 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguaztena 16
 EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Eguena 17
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 18
 EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2018AN-
 Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

5	1	4	2	6	7	3	9	8
7	2	3	9	8	5	1	6	4
9	6	8	1	3	4	7	5	2
3	9	1	4	5	2	8	7	6
4	5	7	8	1	6	2	3	9
6	8	2	3	7	9	5	4	1
8	4	9	7	2	3	6	1	5
2	3	5	6	4	1	9	8	7
1	7	6	5	9	8	4	2	3

			4	6				
			2	9	5			
3	9		8		7	2		
		6	4	9				
		3			4			
			8	1	2			
	6	5		2		1	9	
	7	9		1				
		2		6				

telefono

jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	900 17 11 71
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro ospitala.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
AI-Anon/Alateen.....	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak).....	699 37 75 20

Barixakua 11**ZINE-FORUMA**

19:00. "Big Eyes" (Tim Burton). Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Jarduera doakoa eta irekia. Antolatzaila: Pagatxa emakumeen elkarte. Portalean (areto nagusian).

Zapatua 12**BATZARRA**

11:00. Eibarko Txirrindularien Elkartearen urteko batzarra (bigarren deialdia **11:30**ean). Portalean.

ASTELENA PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30. 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

KALEETAN KANTUZ

12:00. Kaleetan Kantuz abesbatzaren irteera. Untzagatik abiatuta.

BAZKARIA

14:30. Gureak lantegikoen bazkaria, Auzokoak elkartearen eskutik. Urkusu Gain eta Erdi Bana elkarte gastronomikoan.

MUSIKA

15:00 eta 17:00. "Golazen 5.0". 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

AUTOBUSA

15:30. Bilboko manifestaziora joateko, Eibarko Sarek antolatuta. Ego Gainen.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

Domeka 13**ANTZERKI MUSIKALA**

12:30. "Los teloneros del chocolate" (La Red Teatro eta Eibarko Koro Gaztea). 5 euro. Coliseoan.

LEHIAKETA

16:30. XXIV. Gabonetako Marrazki Lehiaketa, umeentzat. As Burgas Galiziako Etxean.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

Astelehena 14**ELKARRETARATZEA**

12:00. Jubilatu eta pentsiodunen kontzentrazioa, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan (udaletxe parean).

BIDEO-FORUMA

18:30. Emakumeen Istorioak: Pepa Flores-Marisol. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Jarduera doakoa eta irekia. Antolatzaila: Pagatxa emakumeen elkarte. Portalean (ikastaro gelan).

Martitzena 15**IKASTEN**

16:00/19:00. Puntu-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

BATZARRA

17:00. Pagatxa Emakume Elkartearen urteko batzarra. Amaieran, Kaleetan Kantuz eta Herrixa Dantzan. Portalean.

HITZALDIA

18:00. "Bizkar hezurrean bilatu gaixotasunaren kausa", Xabier Mendaraz kiropraktiko eta fisioterapeutaren eskutik. Sarrera doan. Portalean.

Eguaztena 16**BIDEO-FORUMA**

18:30. "Zuk" (2017, Unax Blanco) dokumentala eta, ondoren, solasaldia zuzendariarekin. Bilgunean (Bista Eder, 2).

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 17**KALEETAN KANTUZ**

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteranoen entsegua 18:00etan hasiko da). **19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ODOL-EMATEA

18:00. Odol-ateratzea, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

zineaColiseoan**(1 ARETOAN)**

12an: 19,45, 22:30
13an: 17:00, 20:00(Antz)
14an: 20:30

"Como la vida misma"

Zuzendaria: Dan Fogelman

**(2 ARETOAN)**

12an: 22:30
13an: 17:00
14an: 20:30

"Sobre ruedas"

Zuzendaria: Franc Dubosc

**(ANTZOKIAN)**

12an: 19,45, 22:30
13an: 20:00
14an: 20:30

"El gran baño"

Zuzendaria: Gilles Lelouche

**(2 ARETOAN)**

12an: 17:00
13an: 17:00(Antzokian)

"El Grinch"

Zuzendaria: Yarrow Cheney



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, LIHER, gure etxeko txikixak 3 urte haundi egin dittu-eta. Musu bat etxekuon partetik.



Zorionak, AINHOA, atzo 5 urte bete zenduazten-eta. Musu eta besarkada potolua famelixaren eta, batez be, amatxoren partez.



Zorionak, MAIALEN, hillairen 3an 7 urte bete zenduazten-eta! Musu pilla bat danon eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, gure CARLA maittia, bixar 7 urte beteko dozuzelako! Musu haundi bat aitatxo, amatxo eta famelixaren partez!



Zorionak, JULE!, hillairen 4an 6 urte egin zenduazten-eta! Gure etxeko printzesa haunditzen doia. Askoi maite zaiztugu.



Zorionak, HODEI, hillairen 9an 6 urte egin zenduazten-eta. Patxo bat famelixaren eta, batez be, Amets eta Bihotzen partez.




Zorionak, ANE, hillairen 5ian 6 urte bete zenduazten-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Olatz zure ahiztiaren partez.




Zorionak, MARKEL, mutil haundi, hillairen 8an 7 urte bete zenduazten-eta! Holan jarraitu! Musu handi bat famelixaren partez!



Zorionak, ANE!, eguaztenian 8 urte bete zenduazten-eta!! Besarkada potolua etxekuen partez.



Zorionak, GARAZI!!!, atzo 7 urte haundi bete zenduazten-eta. Bete bezain alai eta guapa jarraitu! Etxekuen partez.



Zorionak, HARITZ, domekan 2 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat aitta, ama eta, batez be, zure anaixa Markelen partez.



Zorionak, MARKEL!!! 5 urte bete zenduazten hillairen 7xan-eta!!! Musu potolo bat etxekuen eta, batez be, MAITANERen partez.



Zorionak laurori, urtiak bete dozuez-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak IKER (gaur 18 urte) eta tio IÑIGO, aurreko zapatuan urtiak bete zenduazten-eta. Musu eta besarkada haundi bana famelixaren partez.



Zorionak, ALICIA, urte amaieran urtiak bete dozuzelako. Besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, AINHOA, hillairen 16xan urtiak egingo dozuz-eta! Ondo pasa eguna, famelixa guztiaren partetik!

(2 ARETOAN)
13an: 20:00

"Dantza"

Zuzendaria: Telmo Esnal



Erakusketak

Otsailaren 3ra arte:

– "INTROSPEKTIVA" JESUS MARIA CORMANEN IRUDIAK (*Portalea*)

Urtarrilaren 16tik 27ra:

– "PIRINIOETAKO BURDINAREN BIDEKO ONDARE INDUSTRIALA" IBILTARIA (*Armagintzaren Museoa*)



Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua behar dut alokairuan Eibarren. Tel. 632-695273.
- 3 logelako pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 639-611454.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Isasi, Ipurua edo Legarre inguruan. Erostea aukerarekin. Tel. 646-369330.
- Eibarko gizon bat konpartitzeko pisu bila dabil. Tel. 634-235189.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alokagai J.A. Gisasola kalean, trasteleku moduan erabiltzeko. Tel. 636-906921.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 631-795113.
- Neska eskaintzen da orduka lan egiteko: garbiketarako... Tel. 632-695273.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-230281.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduz malgua. Baita asteburuetan ere. Tel. 634-277037.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 689-798284.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-818388. Adele.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-330721. Flor.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-191490.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-314781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-215907.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 622-677230. Yose-lin.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 600-730447.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-240849.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduz malgua. Tel. 612-455923.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 603-874953.
- Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610-067042.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-667099.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-265200.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-946701.
- Mutil arduratsua eskaintzen da garbiketarako eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 600-730203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 602-133720.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-988471.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 648-406654.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 622-677230.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 5 urteko esperientzia. Tel. 604-149786.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Autoa du garraiorako. Tel. 620-853295.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-874953.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-925525.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 622-504711.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-283447.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 667-060292.
- Gizonezkoa eskaintzen da mugikortasun urriko pertsonak zaintzeko. Tel. 632-518268.
- Laguntzaile tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 631-506763.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-113450.

4.2. Langile bila

- Neska behar dugu 8 urteko umea arratsalde zaintzeko. Tel. 675-006515. Manoli.
- Kamarera/o euskalduna behar dugu taberna baterako. Tel. 634-277015.
- Pertsona behar da tabernan lan egiteko. Tel. 695-690784.
- Emakume euskalduna behar da arratsalde zaintzeko. Tel. 628-330634 eta 630-434238.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Astelehenerdik zapatu arratsaldera. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a Anardi tabernara.
- Kamarera/o behar da Eibarren. Esperientziarekin. Tel. 685-286303.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Selektibitateko klase partikularak ematen dira. 3/4 laguneko talde txikiak. Tel. 685-739709.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Otsailaren 1^{era} arte **MATRIKULA ZABALIK**

2018-19 ikasturtea

ASPALDIKO!

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.

18/19 Matrikula epea zabalik
Plazo de matriculación abierto

UDAL
EUSKALTEGIAK



- MAILA GUZTIETAKO euskara ikastaroak

16 urtetik gorakoentzat

1. MAILA		2. MAILA		3. MAILA	4. MAILA
A1	A2	B1	B2	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	

- Autoikaskuntza
- Azterketa prestakuntza
- **HABEko** titulu ofizialak

ordutegi zabala

TARIFA BEREZIAK: %20, %50 eta %75eko deskontua KONTSULTATU

Eibarko Udala Euskaltegia



Bista Eder, 10 -PORTALEA-
euskaltegia@eibar.eus

Tfnoa: 943 70 09 12

Faxa: 943 82 00 89



FISIOTERAPIA

ZENTRUA

Ane Mendiá


970 kol. zkia.

Arragueta, 20 - behea

943 530642



ane_mendia@hotmail.com



*indiba terapia / kirol lesioak / masajeak / tendinitisak
bizkarreko minak / esquinzeak / etrez-etzeke zerbitzua*

Zatoz gure eskaintza berriak probatzera.

Hipopresiboak, k-strecht eta ergonomia

hobetzeko klase pertsonalizatuak.





UNBE



ORBEA



PADELPISTAK



IGERILEKUA



TENISPISTAK



SPA



ZORIONAK!
eta
2019.
URTE
Kirolari
XOM!



Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar

